

Itsasne Allende Sopelana¹

Nazioarteko eragina Iraultza eta kontrairaultzetan. Amerikako Estatu Batuen eragina Salvador Allenderen gobernuan eta Augusto Pinocheten Estatu-kolpean

5

La influencia internacional en las revoluciones y las contrarrevoluciones. La injerencia de los Estados Unidos de América en el gobierno chileno de Salvador Allende y el posterior golpe de Estado de Augusto Pinochet

International influence on revolutions and counterrevolutions. The United States interference in the Chilean government of Salvador Allende and the subsequent coup d'état of Augusto Pinochet

Fecha de recepción: 29 de enero de 2024

Fecha de aceptación: 31 de marzo de 2024

Laburpena

1970eko azaroaren 4an, Unidad Popularraren alderdiak — ezkerreko alderdien koalizioa —, Salvador Allende sozialista buru zuela, Txileko presidentetzarako hauteskundeak irabazi zituen. Nazioko presidente berriaren inbestidurak hasiera eman zion herrialdearen inoizko aldaketa sozial, ekonomiko eta politikoen proiektu handienari. Gobernu berriak Unidad Popularraren Programa diseinatu zuen, Txilen ezarriko ziren neurriak 40 puntutan laburbiltzen zituen. Idatzitako neurriek sakoneko Iraultza eragin zuten. Izan ere, herrialdeko enpresa nagusiak nazionalizatzetik (horien artean, kobrea) haur bakoitzak egunean litro erdi esne kontsumituko zuela ziurtatu zen. Politikariak, ordea, ezin izan zuten agintaldia bete, Augusto Pinochet Ugarteren estatu-kolpeak eten baitzuen 1973ko irailaren 11n, eta herrialdean diktadura militarra ezarriz 1990era arte. Gaur egun, Pinocheten diktaduraren ondarea Txileko bizitzaren esparru askotan ikus daiteke, hala nola 1980ko konstituzioan, diktadura militarra onartua, eta gaur egun indarrean jarraitzen duena. Artikulu honek Iraultza Allendistak Nazioarteko Sistemari izan zuten garrantzia ezagutu eta baloratu nahi du, baita gerora suertatu zen

¹ Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) doktore aurreko ikerlaria (itsasne.allende@ehu.eus). Bitartez Ikerketa Taldeko kidea (IT1081-16). Webgune guztiak 2024ko apirila baino lehen kontsultatu dira.

kontrairaultza-prozesuarena ere. Horretarako, Estatu Batuek Latinoamerikan duten papera eta politika imperialista aztertuko dira, Txilen egindako esku-hartzearen bidez. Lan hau Nazioarteko Harremanen esparruaren baitan jorratuko da, Fred Halliday-ren ikuspuntua oinarritzat izanda.

Hitz gakoak: Iraultza, Kontrairaultza, Txile, Nazioarteko Harremanak, Imperialismoa.

6

Resumen

El 4 de noviembre de 1970 el partido de la Unidad Popular —una coalición de formaciones de izquierdas— liderada por el socialista Salvador Allende, ganó las elecciones presidenciales de Chile. La investidura del nuevo presidente de la nación dio comienzo al proyecto social, económico y político más ambicioso de la historia del país hasta ese momento. El nuevo gobierno redactó el “Programa de la Unidad Popular”, un corpus de 40 puntos o medidas que abordaba desde la nacionalización de las principales empresas del país —entre ellas, las relacionadas con la producción de cobre— hasta medidas sociales como asegurar el consumo de medio litro de leche al día para los niños. La legislatura, sin embargo, se vio truncada por el golpe de estado liderado por el General Augusto Pinochet el 11 de septiembre de 1973, que instauró una dictadura militar hasta el año 1990. Hoy en día todavía se observan reminiscencias del periodo dictatorial en numerosos ámbitos de la vida chilena, así como en la constitución de 1980, aprobada durante la dictadura y vigente todavía. Este artículo pretende conocer y valorar el alcance de la Revolución Allendista, así como de su posterior proceso contrarrevolucionario, en el Sistema Internacional. Para ello, se va a analizar el papel de Estados Unidos y su política imperialista en América Latina a través de su injerencia en Chile. Este trabajo pertenece a la disciplina del estudio de las Relaciones Internacionales y de manera más concreta se enmarca en la conocida como teoría de las revoluciones trabajada por Fred Halliday.

Palabras clave: Revolución, Contrarrevolución, Chile, Relaciones Internacionales, Imperialismo.

Abstract

On the 4th of November 1970, the "Unidad Popular" party - a coalition of left-wing parties led by the socialist Salvador Allende, won the presidential elections in Chile. The inauguration of the nation's new president began the most ambitious social, economic and political project in the country's history up to that time. The new government drafted the "Programa de la Unidad Popular" (Popular Unity Program), a corpus of 40 points or measures ranging from the nationalization of the country's main companies - among them those related to copper production - to social measures such as ensuring the consumption of half a liter of milk a day for children. The legislature, however, was cut short by the coup d'état led by General Augusto Pinochet on the 11th of September of 1973, which established a military dictatorship until 1990. Today, reminiscences of the dictatorial period can still be observed in many areas of Chilean life, as well as in the 1980 constitution, approved during the dictatorship and still in force today. This article aims to know and evaluate the impact of the Allende Revolution, as well as its subsequent counterrevolutionary process, in the International System. To this end, it will analyze the role of the United States and its imperialist policy in Latin America through its interference in Chile. This work belongs to the discipline of the study of International Relations and, more specifically, it is framed within the so-called theory of revolutions worked by Fred Halliday.

Keywords: Revolution, Counterrevolution, Chile, International Relations, Imperialism.

1. Sarrera

Lan honen bitartez, Iraultzak eta Kontrairaultzak aztertuko dira. Hori ilustratzearren, kasu-ikerketan gisa, Salvador Allende-ren, Txileko presidente ohiaren, Gobernua eta ondorengo estatu-kolpea hautatu dira.

1970eko azaroaren 4an, Salvador Allendek hauteskundeak irabazi eta bi hilabetera, "Txileko sozialismoranzko bidea" hasi zen. Presidentearen inbestidurak hasiera eman zion herrialdearen inoizko aldaketa sozial, ekonomiko eta politikoen proiektu handienari. Gobernuak Unidad Popularraren Programa diseinatu zuen, Txilen ezarriko ziren neurriak 40 puntutan laburbiltzen zituena. Idatzitako neurriek sakoneko iraultza eragin zuten. Izan ere, herrialdeko enpresa nagusiak nazionalizatzetik (horien artean, kobrea) haur bakoitzak egunean litro erdi esne kontsumituko zuela ziurtatu zen.

Politikariak, ordea, ezin izan zuen agintaldia bete, Augusto Pinochet-en estatu-kolpeak eten baitzuen 1973ko irailaren 11n. Gaur egun, Pinocheten diktaduraren ondarea Txileko bizitzaren esparru askotan ikus daiteke, hala nola 1980ko konstituzioan, diktadura militarrek onartua, eta gaur egun indarrean jarraitzen duena.

Txileko gizarteak, batez ere gazteek, urteak zeramatzaten eredu neoliberalaren aurka egiten. Hala ere, metroaren txartelaren igoerak desberdintasuna ezaugarri zuen gizarte baten protesta sozialak leherrarazi zituen. Horren ondorioz, herrialdean protestak ugartu eta areagotu ziren, herrialdeko oinarrizko egiturak jomugan jarritz. Hori dela eta, 2020ko urriaren 25ean egindako erreferendumaren ondorioz, Txile prozesu konstituziogile batean murgildu zen, konstituzio berri bat idaztea helburu duena, eta Allenderen azken hitzak baieztatzen dituen: "Sigan ustedes sabiendo que, mucho más temprano que tarde, se abrirán las grandes alamedas por donde pase el hombre libre para construir una sociedad mejor"². Hala ere, prozesuak ez du aurrera egin eta, gaur egun, oraindik ere Pinocheten garaiko konstituzioa indarrean jarraitzen du.

Aztergaiari berriro helduz, proposatutako ikuspegi teorikoaren jatorria Fred Halliday-k³ prozesu iraultzaileek nazioarteko sisteman duten eraginari buruz egindako planteamenduak dira. Hallidayk aipatzen duen bezala, Iraultzek eta Kontrairaultzek elkarri eragiten diote, eta internazionalismo iraultzailea eta internazionalismo kontrairaultzailea ia emaitza unibertsalak dira. Gainera, biak funtsezko aldagaiak dira nazioarteko sistemaren sorreran. Hori dela eta, egileak nazioarteko egituraren eraketan iraultzek protagonismo handia dutela baieztatzen du. Gainera, prozesu horiek sistemarentzat aldaketa itzulezinak dakartzatela dio, haien benetako garrantzia islatuz

Teoria aztertuta, Txileko iraultza eta kontrairaultza aukeratu dira, hau da, Salvador Allenderen Gobernu iraultza gisa eta ondorengo estatu-kolpea kontrairaultza gisa, kasu praktiko bezala. Horrela, Allenderen legegintzaldi amaitu gabea aztertuko da, bere helburu iraultzaileei eta beste gobernu sozialistekin izan zituen lerrokatzeei arreta eskainiz. Bestalde, Pinocheten estatu-kolpea nazioarteko ikuspegitik aztertuko da, Estatu Batuen eragina bertan ikusteko nahiarekin.

Aipatutako guztia kontuan hartuta, ikerketa honen helburu nagusia Allenderen gobernuak eta Augusto Pinocheten nazioarteko sisteman izan zuten irismena ezagutzea

² Aipua landutako testuen hizkuntzan mantenduko dira.

³ Halliday, Fred, *Revolution and world politics: The rise and fall of the sixth great power*. North Carolina: Duke University Press, 1999 eta *Las relaciones internacionales en un mundo en transformación*. Madrid: La Catarata, 2002.

eta baloratzea da. Horretarako, Estatu Batuek Salvador Allenderen gobernuan, hau da, Allendek suertatutako Iraultzan, eta Augusto Pinocheten estatu-kolpean izan zuten eragina aztertuko da, iraultzaren eta kontrairaultzaren adibide argi gisa. Bestetik, hainbat azpihelburu planteatu dira:

1. Nazioarteko harremanetan iraultzek duten irismena eta garrantzia ezagutzea, eta kontrairaultzak nola suertatzen diren aztertzea.

2. Estatu Batuen kanpo-politika aztertzea, Guda Hotzaren urteetan Latinoamerikako herrialdeekiko jokatu zen paperan arreta jarritz.

3. Salvador Allenderen gobernu eta Augusto Pinocheten estatu-kolpea aztertzea, Estatu Batuek iraultzan eta kontrairaultzan izan zezaketen eragina egiaztatzeko.

Planteatutako aztergaiaren, helburu nagusiaren eta azpihelburuak kontuan hartuta, bi hipotesi nagusi zehaztea erabaki da; batetik, lehenengo hipotesiak eduki teorikoa du, eta, bestetik, bigarren hipotesiak lotura zuzena du aztertutako kasuarekin.

H.1.: Iraultzek funtsezko papera jokatzen dute nazioarteko harremanetan.

H.2.: Estatu Batuetako gobernuaren papera erabakigarria izan zen Augusto Pinocheten estatu-kolpean.

Ikerketa hau lantzeko erabili den metodologia bigarren mailako datu bibliografikoak izan dira. Artikulu zientifikoetan eta aztergai diren liburu eta web-orrialdeetan batez ere oinarritu da dokumentazio bibliografikoa. Dena dela, lehenengo mailako iturriak ere baliatu dira, hala nola elkarrizketak, diskurtsoak eta Txile eta Estatu Batuetako gobernuak argitaratutako dokumentuak.

Beste alde batetik, ikerketa hau Nazioarteko Harremanen esparruaren baitan egingo da. Hori dela eta, marko teorikoaren oinarriak diziplina horren baitan jorratuko dira, Fred Halliday-ren ikuspuntua oinarritzat izanda. Haatik, beste hainbat autoreren teoriak ere kontuan hartuko dira analisis egiterako orduan.

2. Iraultzak eta kontrairaultzak aztertzen

2.1. Iraultzak

10

Iraultza antzinako Greziaren aurretik aipatu dezakegun kontzeptu politiko bakarretako bat da. Izan ere, kontzeptu politiko guztien artean kontzeptu politikotzat onartua izan zen lehena izan zela ere esan daiteke⁴. Horregatik, historian zehar hainbat autorek kontzeptua definitu nahi izan dute. Hala ere, esan beharra dago askotan zaila dela terminoa definitzea, George Lawson-ek dioen bezala: "Revolutions do not have uniform structures, but they do have shared forms"⁵. Hori dela eta, autore askok terminoari bere definizio propioa eman diote.

XVI. mendean, Edmund Burke-k Iraultza "eszena tragikomiko" bat bezala deskribatu zuen, "fanatiko filosofikoek" martxan jartzen zutenak, "fikzio higuigarri" bat zabaltzen saiatzen zirenak, "kaos antisozial, gizalegearen kontrako eta lotsagabe" batera eramango zuena⁶.

Iraultzen garrantzia argi utzi duen autore bat egon bada, hori Karl Marx izan da: "la fuerza propulsora de la historia, incluso la de la religión, la filosofía, y toda otra teoría, no es la crítica, sino la revolución" (Marx, 1845/46-2014). Marxek Nazioarteko Harremanen diziplinari aurrea hartu zion eta iraultzen arazoa planteatzea gizateriaren arazoa planteatzea zela ikusten jakin zuen.

Geroago, Theda Skocpol-ek *Los Estados y las Revoluciones* liburuan, Iraultzak Estatuaren eta gizarte baten klase-egituraren eraldaketa azkarrak eta oinarritzkoak direla aipatu zuen. Gainera, egileak klase baxuen matxinaden bidez aurrera eramaten direla uste zuen. Gizarte-iraultzak, bereziki, beste gatazka-mota eta eraldatze-prozesuetatik desberdintzen dira, batez ere, bi kointzidentzien konbinazioa direlako: alde batetik, gizarte-egiturazko aldaketa eta klase-borrokaren artean, eta, bestetik, eraldaketa politikoa eta gizarte-eraldaketaren arteko kointzidentziaren artean⁷. Hau da, Iraultza aurrerapauso bat da aldaketa politiko eta sozialen loturan, eta eskala handiko parte-hartzearen garrantziaren identifikazioan. Era berean, Jean Baechler-ek honela definitzen ditu Iraultzak: "el paso de un equilibrio a otro"⁸. Halaber, Lawsonek uste du "revolutions involve the forceful breakdown of the old order and the attempt to reconstruct

⁴ Calvert, Peter, *Revolution*. Southampton: Macmillan Education, 1970, p. 15.

⁵ Lawson, George, *Anatomies of revolution*. London: Cambridge University Press, 2019, p. 64.

⁶ Burke, Edmun, *Reflections on the Revolution in France*. Oxford: Oxford University Press, 1993, p. 58.

⁷ Skocpol, Theda, *States and Social Revolutions*. Cambridge: Cambridge University Press, 1979.

⁸ Baechler, Jean, *Los fenómenos revolucionarios*. Barcelona: Ediciones Península, 1974, p. 240.

forms of political, economic, and symbolic authority⁹. Argi geratzen da Iraultzak hausturak direla, aukera berriak sortzen dituztela eta sistema eta ordena berriei bidea ematen dietela.

Nazioarteko Harremanen diziplinak iraultzekin mantendu duen harremana deserosoa izan da beti, eta euren existentzia marjinala da. Nazioarteko Harremanen ikerketa-esparruan eta instituzionalizatutako irakaskuntzan, Iraultzak eta gerrak bereizi egin dira. Hala ere, Iraultzak bigarren mailan geratu izan dira beti. Bazterketa honen arazoa honako hau izan daiteke: Nazioarteko Harremanak gerren eta gerren arrazoien ikerketa gisa hasi ziren, eta, oraindik ere, horretan zentratuta jarraitzen dute. Hau da, beraien ustez, Estatuaren arteko gerrak arrazionalki erabakitako erasotzat hartu behar dira. Horren froga da eskuliburuek eta ikerketa teorikoek leku gutxi eskaintzen dietela iraultzei¹⁰. Hala ere, iraultzek XX. mendea moldatu dute batez ere; horregatik, diziplinako eskola batzuk aztertzen saiatu dira.

Nazioarteko Harremanen lehen eztabaidaren protagonista nagusiek, hau da, errealistek, ez dute Iraultzei buruz hitz egiten; berez, aztergai gisa, baizik eta adostasunaren presioak frogatzeko erabiltzen dituzte, hau da, sistemaren eraikuntzek ezarritako sozializazioarena, Estatuaren desbideratzaileenari edo errebisionistenari ezarri arte¹¹. Errealistek Iraultzak aipatzen dituzte, baina beren teoriak baieztatzeko objektu gisa tratatzen dituzte.

Eskola errealistak uste ohi du Iraultzak lotuta daudela kanpo-politikaren modu aldakorretara eta Estatuaren lehentasunetara. Hala, iraultzak jotzen dituzte, nazioarteko sisteman, modu komenigarrian kontrolatu beharreko faktore "errebisionista", "asegabe" edo desorekatzaile gisa. Errealismoak ez ditu Iraultzak aztergai gisa hartzen, adostasunaren presioak frogatzeko tresna bezala baizik. Euren ustez, Iraultzek ere ezin dute sistematik ihes egin¹². Azken finean, diziplinak munduan haustura bat ikusten du iraultzetan, herrialde iraultzaileek euren boterea erakutsiz ikusarazten dutena.

David Armstrong-en lana ikuspegi errealistatik iraultzei buruz egindako hausnarketarik osoena da¹³. Armstrong Wight-Bull bezalako klasikoek "nazioarteko gizartearen" kontzeptio tradizioaletik aldentzen da. Egileak, lehenik eta behin, gizarteak Estatuaren barneko konstituzioan gehitzen dituen "arauak" sartzen ditu, hala

⁹ *Anatomies of revolution*, op.cit, p. 30.

¹⁰ *Las relaciones internacionales en un mundo en transformación*, op.cit, pp. 157-158.

¹¹ *Ibidem*, p. 159.

¹² *Ibidem*, p. 164.

¹³ *Ibidem*, p. 159.

nola esklabotasuna edo portaera demokratikoa. Beste aldetik, autoreak onartzen du Estatu iraultzaileek *statu quo*-aren potentziak behartu ditzaketela euren artean lotzen dituzten arauak berrikustera¹⁴. Aldiz, Armstrong bera ere ez da gai iraultzen tamaina ikusteko.

Azken finean, iraultzek barne-egiturak nazioarteko harremanen azterketatik kanpo gera daitezkeela dioen hipotesi errealista zalantzan jartzera behartzen gaituzte¹⁵. Estatu baten barruan gertatzen denak ondorio zuzena du nazioartean, Estatuak ez baitira unitate isolatuak. Horrela, eskola errealista ez da gai ikusteko kanpo-politikako faktoreak aztertzeko herrialdeen barne-politikari begiratu behar zaiola.

Materialismo historikoa izan zen, Nazioarteko Harremanen aldaera "estrukturalistan", iraultzei arreta handiena jarri ziena, eta luze ikertu dituen korrontea da¹⁶. Teoria marxistaren arabera, litekeena da Iraultza gertatzea dauden egitura sozial eta politikoen eta lidergoak garapen ekonomikoa oztopatzen dutenean¹⁷. Hau da, marxistek Iraultzak prestakuntza- eta trantsizio-rolaren konfiguratzailatzat, eta, gainera, aldaketa politiko eta sozialen erantzuletzat ditu. Marxek potentzia handietan oinarritutako teoria baten suposizioak kritikatu zituen. Iraultzak argi positibo baten pean daudela jotzen dute, eta edozein Iraultza espezifikoki nazioarteko testuinguruan kokatu behar dela pentsatzen hasi ziren. Marxen ustez, pentarkiaren XIX. mendeko ordena, bost potentzien ordena, "seigarren potentzia" batengatik, hau da, iraultzagatik, aldatuko zen. Hala ere, materialismo historikoa hain zentratuta dago iraultzen nazioarteko dimentsioan, non zailtasunak dituen azaltzeko zergatik dauden Iraultzak Estatu zehatz batzuetara mugatuta eta zergatik dituzten ezaugarri zehazki nazional eta nazionalistak¹⁸. Materialista historikoak dira iraultzen nazioarteko dimentsioa hobekien ikusi ahal izan dutenak, baina mugak izan dituzte azaltzeko orduan.

Nazioarteko Harremanen eskoletan "terminoak" izan duen harrera ikusi ondoren, garrantzitsua da horiek definitzea, definizioaren auzia eta iraultzen lan historikoa funtsezkoak baitira¹⁹. Hori dela eta, autoreak honako hau esan zuen iraultzei buruz:

¹⁴ Armstrong, David, *Revolution and world order: The revolutionary state in international society*. London: Oxford University Press, 1993.

¹⁵ *Las relaciones internacionales en un mundo en transformación*, op.cit, p. 173.

¹⁶ *Ibidem*, p. 165.

¹⁷ DeFronzo, James, *Revolutions and Revolutionary Movements*. Connecticut: Westview Press, 2015, p. 21.

¹⁸ *Las relaciones internacionales en un mundo en transformación*, op.cit, p. 165.

¹⁹ *Ibidem*, p. 164.

Revolutions have aspired to the internal transformation of societies, but equally they have sought to alter relations between states and nations. They have done this not only by provoking conflicts between them and by seeking to promote change in other states, but also by aiming to alter the norms, the very ways, in which states and peoples have interacted. In ideological and programmatic terms, a revolution aims to transform a society within: it has equally to be international, or it is nothing²⁰.

Halaber, Hallidayk iraultzen definizio hau eskaintzen du: “major political and social transformations in the context of a contradictory modernity involving mass participation and the aspiration to establish a radically different society”²¹. Hallidayk iraultzek nazioartean duten benetako esanahia erakusten du. Autoreak Iraultza batek lurralde batean eztanda egin ondoren gizarteek jasaten dituzten barne-eraldaketak ikusteaz gain, horiek sustatzea helburu dutela dio. Hori da, zalantzarik gabe, Estatu Batuek Txilen zuten beldur handienetako bat. Potentziak ikusi zuen Allenderen gobernuaren eredu bihur zitekeela eskualdeko beste herrialde batzuentzat, eta horrek kontinentean zuen nagusitasuna galtzea ekarriko zuela. Horregatik, Hallidayren definizioa ikerketa honetan zehar "Iraultza" kontzeptua aipatzerako orduan erabili den definizioa izango da.

Lawsonek, *Anatomies of Revolution* liburuan, horrela definitu zituen Iraultzak: “Revolutions are not static objects of analysis, but processes that change in form across time and place”²².

Lawsonek Iraultza gizarte-eraldaketarekin lotutako prozesuen familia zabalago baten parte dela uste du. Egileak Aro Modernoko Iraultzak gerra zibilen aurretik edo ondoren gertatu zirela ikusten du. Bestalde, estatu-kolpeak ekintza iraultzaileak edo kontrairaultzaileak izan ditzakela uste du. Lawsonek matxinadak iraultzekin ere lotzen ditu. Sarritan, eskubidedun talde pribatuak izan dira etengabeko matxinada egoeran egon direnak, Iraultzak eragin dituztenak. Gainera, ordena autoritarioetatik demokratikoetarako trantsizioak sarritan dinamika iraultzaileari gainjartzen zaizkio. Azkenik, gobernuen erreformek Iraultza bizkortu dute kasu batzuetan, eragotzi beharrean.

Era berean, Goldston-ek honako hau dio iraultzei buruz: “best define revolution in terms of both observed mass mobilization and institutional change, and a driving

²⁰ *Revolution and world politics: The rise and fall of the sixth great power*, op.cit. p. 3.

²¹ *Ibidem*, p. 21.

²² *Anatomies of revolution*, op. cit. p. 2.

ideology carrying a vision of social justice. Revolution is the forcible overthrow of a government through mass mobilization (whether military or civilian or both) in the name of social justice, to create new political institutions”²³. Ondoren ikusiko dugun moduan, hau ez da Txilen gertatu zena.

Azken finean, Hallidayren eta Lawsonen teoriekin bat eginez, Iraultzak ezin dira kasu isolatutzat hartu Estatuaren barruan. Iraultzak ez dira inoiz barne-mailan geratzen, nazioarteko ekintzak baitira. Gainera, desegonkortasuna sortzen dute potentzia hegemonikoek ezarritako *statu quo*-an; horregatik, potentzia hegemonikoek potentzia horiekin amaitzea bilatzen dute, prozesu kontrairaultzaileen bidez. Horren adibide izango da ikerketa honen bidez aztertuko den kasua, non Estatu Batuek Txileko iraultzari amaiera emango dioten kontrairaultza baten bidez. Kontrairaultza hori estatukolpe bezala aurkeztuko da, bere prestaketa Allende presidentearen eskutik Iraultza gertatu aurretik ere gauzatzen hasi zena.

Iraultzak Nazioarteko Sistemaren kokatzerako orduan, kontuan izan behar dugu Nazioarteko Sistema ez da elkarri lotutako Estatu subiranoen batura soilik, baita gizarte sozial eta politiko jakin batzuen egonkortasunerako aurretiazko nazioarteko baldintzei eusten dien bat ere. Nazioarteko araua ez da soilik estatuek modu konbentzionalean lankidetzan aritzea, baizik eta beste Estatu eta gizarte batzuk ere antzekoak izatea beren barne-eraketan. Bestela esanda, homogeneousun-presuntzioa dago nazioarteko sistemaren, bai interakzio-mekanismoetan, bai barne-gaien antolamenduan ere. Nazioarteko ordenaren aurretiko baldintza barne-ordena da. Barne-ordenaren aurretiko baldintza Estatuaren osakeran homogeneousun handia egotea da²⁴. Iraultzak nazioarteko elementuak direnez, beharrezkoa da Nazioarteko Sistemaren duten posizioa ikustea. Hori dela eta, Hallidayk argi uzten du iraultzek nazioarteko sistemaren duten hutsunea: “all revolutions therefore produce an ideology that in addition to calling for the internal transformation of societies also proclaims itself as pertinent to the international sphere, as, in some sense, 'international' or 'global'”²⁵.

Martin Wight-ek²⁶ uste du Nazioarteko Sistemaren historikoki hiru aldi egon direla, ezarritako botereen eta indar iraultzaileen arteko gatazka ideologikoak suposatuz zituztenak eta, azkenean, nazioarteko ordenaren oinarriak aldatu zituztenak:

²³ Goldstone, Jack, *Revolutions. A Very Short Introduction*. Oxford: Oxford University Press, 2014.

²⁴ *Revolution and world politics: The rise and fall of the sixth great power*, op.cit. p. 229.

²⁵ *Ibidem*, p. 59.

²⁶ Wight, Martin. *Power politics*. Londres: Leicester University Press, Royal Institute of International Affairs, 1978.

1) Lehen Iraultza aldia (1517-1648): etapa hau Martin Lutero-ren Erreforma Protestanteari lotutako errebolta erlijiosoekin hasi eta Westfaliako bakearekin amaitu zen.

2) Bigarren aldia (1760-1815): aldi honetan Ipar Amerikako Iraultza (1776) eta Frantziako Iraultza (1789) gertatu ziren. Gertaera horiek Nazioarteko Sistemaren krisia ekarri zuten eta nazioarteko sistema monarkiko, kontserbadore eta kristau baten defentsarako ideal kontrairaultzaile berri bat eratzen hasi zen.

3) Hirugarren ziklo iraultzailea (1905-1991): XX. mendearen etorrerarekin hasi eta bloke sobietarraren desagertpenarekin amaitu zen. Urte hauek nazioarteko ekonomiaren bilakaeraren ondoriozko baldintza sozioekonomikoen aurkako altxamenduek markatuta egon ziren. Hirugarren ziklo honetan Txileko Iraultza eta Kontrairaultza kokatzen dira.

Lawsonen ustez, iraultzek garrantzi hirukoitza dute Nazioarteko Sistemari mundu modernoaren eraketan funtsezko papera izan duten prozesu substantiboak dira; kategoria analitikoak dira; eta arau-proiektuak dira, jendea horien aurka borrokatu eta hil dituenak²⁷. Horregatik, aipatzekoa da iraultzek benetako garrantzia dutela Nazioarteko Sistemari, eta horiek izan direla, modu batera edo bestera, Nazioarteko Sistema definitu dituztenak. Hala ere, Nazioarteko Harremanen esparruan ez zaie eman benetan duten garrantzia.

Guda Hotza Hirugarren Munduko gatazketara hedatu zen. Gainera, iraultzek XX. mendearen bigarren erdialdeko gertaera arriskutsu eta bortitzenak eragin zituzten. Guda Hotzaren urteetan, Hirugarren Munduko gatazkek nazioarteko tentsioak elikatu zituzten. Horren adierazle da Hirugarren Munduko iraultzei dagokienez jarraitu beharreko politikak izan zirela Estatu Batuetako presidentek beraien izenak "doktrinei" ematera eramane zutenak. Urte horietako munduaren historia, neurri handi batean, baina ez eskusiboki, Nazioarteko Sistemak Iraultzari emandako erantzunaren historia izan zen.

Iraultzek sistema bipolarren oinarri historikoa eman zuten eta armamentu nuklearraren norgehiagoka katalizatzaile garrantzitsua izan ziren. Era berean, potentzia handien arteko lehiaketen arrazoi izan ziren eta beraiena barne egonkortasuna mehatxatu zuten²⁸. Ez zen kasualitatea izan Estatu Batuek Txilen izan zuten esku-

²⁷ *Anatomies of revolution*, op.cit, p. 8.

²⁸ *Las relaciones internacionales en un mundo en transformación*, op.cit, p. 167.

hartzea. Estatu Batuetako kanpo-politikaren helburua iraultzekin amaitzea zen, eta Txile beste kasu bat baino ez zen izan potentziak esku-hartu zuen hainbeste iraultzetatik. Azken finean, Hallidayk gakoarekin eman zuen: “fue la revolución, y no el entendimiento mutuo, lo que rompió el molde del mundo post 1945 y lo que hizo entrar en un nuevo período histórico”²⁹.

Lawsonen ustez, “international factors are often seen as the precipitant cause of revolutions”³⁰. Izan ere, nazioarteko faktoreek eginkizun anitza dute iraultzen sorreran, baina aldaketan laguntzen dute, batez ere Estatuak ahulduz: gerra batean garaituz edo krisia eraginez, nazioarteko aginduak suntsitzen dituzten nazioarteko aldaketa ekonomikoen bidez, estatuen eta gizarteen arteko gatazkak eraginez Estatuak nazioartera lehiatzeko behar dituzten baliabideak mobilizatzearen ondorioz edo potentzia hegemoniko batek bermeak kentzearen ondorioz³¹. Txileren kasuan, Allenderen eskutik etorri zen Iraultzak nazioarteko aldaketa ekonomikoak ekarri zituen. Txileko ekonomian funtsezkoak ziren hainbat sektoreen nazionalizazioak eta ideologia sozialista zuten herrialdeetara hurbiltzeak benetako haserrea eragin zuten Estatu Batuetan. Hala ere, potentziaren kanpo-politika aldaketa hauetarako prestatzen ari zen, baita Iraultza suertatu aurretik ere, Allendek kargua hartu aurretik Kontrairaultza elikatzen hasi baitziren.

Hallidayk Nazioarteko Sistemaren iraultzek benetan markatu dutenaren giltza ematen du: “The evolution and character of the international system are inextricably linked to the incidence of revolutions; if other factors played a formative role, none was greater than that of political and social upheaval within states”³². Eragin hori nabarmena da Estatu Batuek herrialde iraultzaileekiko duten kanpo-politikan, eta horren adibide da, berriz ere, Txile.

Hartu duten forma edozein izanda ere, Iraultzak erronka bat dira *statu quo*-aren agintaritzarentzat, bai herrialdean, bai atzerrian, itxuraz izugarriak diren indarrak gainditzean ematen duten adibideari eta jatorrizko gizartearen barruko testuingurutan zein nazioarteko ordenetan funtsezko aldaketak sortzeko duten gaitasuna dela eta³³. Erregimen bati aurre egiteak eta kargutik kentzeak ondorioak ditu beste leku batzuetan. Herrialdean egindako aldaketek eta aldarrikatutako legitimitate-printzipio berriek

²⁹ Ibidem, p. 168.

³⁰ *Anatomies of revolution*, op.cit, p. 305.

³¹ *Las relaciones internacionales en un mundo en transformación*, op.cit, p. 169.

³² *Revolution and world politics: The rise and fall of the sixth great power*, op.cit. p. 206.

³³ *Anatomies of revolution*, op.cit, p. 7.

eragina dute bai herrialdearen barnean, bai kanpoan³⁴. Beraz, Iraultzak Estatu batean duen eragina nazio-barruko zein nazioarteko arazo bihurtzen da, Estatua betirako aldatuko baita eta horrek eragina izango baitu gizartean (egungo prozesu konstituziogilean Allenderi egiten zaizkion etengabeko aipamenak horren adibide dira), eta, gainera, herrialdean nazioartean duen lekua betiko aldatuko baita.

2.2. Kontrairaultzak

Wightek azken 500 urteei dagokienez, horien erdian baino gehiagotan Estatu iraultzaileen eta kontrairaultzaileen arteko gatazkaren bat izan zutela baieztatu zuen³⁵. Hala ere, egungo hiztegi politikoaren termino askok bezala, "Kontrairaultza" terminoaren jatorria Frantziako Iraultzan dago, hau da, 1790eko hamarkadaren hasieran garatu zen mugimenduan, boterean zegoen monarkia berrezarri nahi zuena. Kontrairaultzak ezin du atzera egin, ezin du bere osotasunean lehengoratu lehen zegoena, alegia, denboraren joanak eta iraultzaren inpaktuak berak erreplika eragozten baitu. Iraultzak iragana arbuia nahi duen bezala (eta ezin du erabat baztertu), Kontrairaultzak ezin du errealitate bihurtu boteretik kendu zutena berrezartzeko duen asmoa³⁶. Hallidayren hitzen adibide da Txileko Kontrairaultza, txiletarrei Iraultza ahaztarazi ez ziena, eta horren erakusgarri da gaur egun martxan dagoen prozesu konstituziogilea, non Allendek gizarte hobea eraikitzeko aipatutako "Zumardi Handiak" irekitzen ari direla dirudien.

Hasiera batean kontrairaultza-saiakeren eragina azal dezaketen arrazoiek ez dute behar bezala azaltzen zer gertatu zen. Iraultzak zergatik gertatu ziren galderaren erantzun begi bistakoena hurrengoa da: kanpo-politika aktibistagatik eta iraultzaren esportazioa sustatzeagatik, beste Estatu batzuen segurtasuna mehatxatzen dutelako. Baina hori horrela balitz, mehatxatutako Estatuak Kontrairaultzari eutsiko liokete, Iraultzak kanpo-politikarekin konprometituta jarraitzen duen bitartean, eta hori ez da kasua. Estatuak kontrairaultzetan sartzearen zergatia hori baino konplexuagoa da, eta, izan ere, askok zalantzan jarri dute ekintza horien arrazionaltasuna. Kontrairaultzaren arrazoiari buruz zalantzarik ez duen pertsona-talde bakarra iraultzaileak dira: *statu quo*-aren botereentzako mehatxu gisa ikusten dute euren burua, eta, beren ideologia internazionalistaren barruan, nazioartean eratutako zapalkuntza egitura baten aurkako

³⁴ *Revolution and world politics: The rise and fall of the sixth great power*, op.cit. p. 228.

³⁵ *Power politics*, op.cit, p. 92.

³⁶ *Revolution and world politics: The rise and fall of the sixth great power*, op.cit. p. 208.

kolpe gisa ikusten dute euren Iraultza. Beste batzuentzat, ordea, egoera ez da hain argia izan. Idazle liberalek denbora luzez argudiatu dute Iraultzak bakean utzi behar direla, konfrontazioak autoritarioago baino ez dituela bihurtzen. Izan ere, 1945etik aurrera, kritika liberalek Estatu Batuetako politikarekiko izan duten joera guztia puntu hau egitea izan da. Beste alde batetik, idazle kontserbadoreek ere antzeko ondorioa atera dute kasu batzuetan. George Kennan Estatu Batuek Hirugarren Munduan parte hartzearen aurka azaldu zen, Hans Morgenthau nazioarteko harremanetako teoriko "errealistak" bezala. Esku-hartzearen aldeko argudioa, liberalismo oldarkorra kalkulaturako errealismoa baino gehiago, inoiz ez zen hain argia eta sinesgarria izan³⁷.

Bestalde, marxistentzat, Kontrairaultzaren arrazoia errebolta horiek sistema kapitalistarentzat zekarten mehatxua zen, Hirugarren Munduko herrialdeetan lotutako inbertsioetan eta interesetan irudikatua: petrolioan, landaketetan, industrian, finantzetan, zerbitzuetan. 1945etik aurrera Estatu Batuek Hirugarren Munduan izan zuten esku-hartzeari buruzko literatura kritikoaren zati handi batek puntu hori azpimarratu zuen, eta esku-hartzeetarako justifikazio ekonomiko identifikagarria bilatu zuen³⁸. Txileren kasuan, horren adibide izan zen Estatu Batuek kobre txiletarrean zituzten interesak.

Nick Bisley-ren esanetan, hiru modu desberdinetan egin daiteke Kontrairaultza. Lehenik, Kontrairaultza Estatu iraultzaile bat boteretik kentzeko ahaleginei buruzkoa izan daiteke. Bigarrenik, erronka iraultzaileak sortzea saihesten saiatzen diren prebentzio-ahaleginak ere aipa daitezke. Eta hirugarrena eta azkena, Kontrairaultzak barne traizioa jasateko beldur diren iraultzaileen autosuntsiketa edo paranoiari ere erreferentzia egin diezaioke³⁹. Kasu honetan, bigarren puntua da aztertzekoa dena, hau da, Kontrairaultza, politika iraultzaileak sor ez daitezen aurrera eramaten diren ekintzak, horixe egin baitzuten Estatu Batuek Txilen.

Estatu kontrairaultzaileen esku-hartzea bai informala, ezkutuko praktikak eta lotura kulturalak barne hartzen dituen, bai eta formala ere bada, propaganda, entrenamendua, laguntza eta arma-hornidura barne hartzen dituen. Bisleyk bi laguntza mota horiek bost jarduera-taldetan banatzen ditu: lehenik eta behin, esku-hartze militar zuzenaren bidez. Bigarrenik, laguntza finantzarioa eta laguntza klandestino indar kontrairaultzaileei. Hirugarrenik, behe-eskalako jazarpena, hala nola propaganda-

³⁷ Ibidem, p. 227.

³⁸ Ibidem, p. 229.

³⁹ Bisley, Nick, "Counter-revolution, order and international politics". *Review of International Studies*. 30, pp. 51-52.

kanpainak, diplomazia publikoa eta irrati-seinaleen interferentzia. Laugarrenik, gabetzea, hala nola zigorrak. Eta bosgarrenik eta azkenik, asaldura, hau da, Estatu iraultzaileak ez aitortuz⁴⁰. Txileren kasuan, bigarrenak funtzionatu zuen, Estatu Batuek laguntza ekonomikoa eman baitzieten Txileko indar kontrairaultzaileei ideologia marxistako gobernu boteretik kentzeko.

Hallidayk honela definitu zituen Kontrairaultzak: "The term "counter-revolution" refers to a policy of trying to reserve a revolution, and, by extension, to policies designed to prevent revolutionary movements that have already gained some momentum from coming to power"⁴¹. Hallidayren hitzak zehazteko, garrantzitsua da De Maistrek ematen duen definizio hau gogoan izatea: "La contrarrevolución no será una revolución a la inversa, sino lo contrario a la revolución"⁴². Baina egia da Lawsonek dioena: "the revolution revolutionizes the counter-revolution"⁴³.

Argi dago Iraultzak eta Kontrairaultzak konektatuta dauden fenomenoak direla, fenomeno bat bestearen ondoren gertatzen ohi delako. Arno Mayer-ek dio indar iraultzaileen eta kontrairaultzaileen arteko gerra hurrengo egoeratik datorrela: "over-reaction to over-perceived Revolutionary dangers"⁴⁴. Halaber, Txileren kasuan ikusiko den bezala, Kontrairaultza batek Iraultza batekin amaitu dezake: "Counter-revolution can, however, overthrow the political system created by the revolution and restore the main political and social elements of the previous order"⁴⁵.

Kontrairaultzaren historia, beraz, Iraultzak eragozteko ahaleginen eragin ia unibertuala da. Gainera, ahalegin horien emaitza mugatuari dagokio, konparatiboki mugatua eta sarritan emaitzarik gabekoa. 1789 eta 1989 arteko aldi osoan, "the coercive overthrow of an established revolutionary regime" bezala definitutako Kontrairaultza bi alditan baino ez zen lortu: bata, estatu arteko gerra baten porrotaren bidez, eta, bestea, bere herriaren babesa galdu zuen estatu baten aurka botere militar izugarria erabiliz, Kontrairaultzek, "violent suppression of revolutionary movements" gisa definituta, historia arrakastatsua goa izan zuten, baina kasu honetan ere deigarria da politika horien arrakasta mugatua⁴⁶. Txileko kasua bigarren definizioan kokatzen da, eta kasu honetan

⁴⁰ *Revolution and world politics: The rise and fall of the sixth great power*, op.cit. pp. 210-211 y "Counter-revolution, order and international politics" op.cit. pp. 52-53.

⁴¹ *Revolution and world politics: The rise and fall of the sixth great power*, op.cit. p. 207.

⁴² De Maistre, 1796, hemen aipatua: Arendt, Hannah, *Sobre la revolución*. Madrid: Alianza, 1951.

⁴³ *Anatomies of revolution*, op.cit, p. 87.

⁴⁴ Mayer, Arno, *Dynamics of Counter-Revolution in Europe, 1870-1956*. London: Harper, 1977, p. 202.

⁴⁵ *Revolution and world politics: The rise and fall of the sixth great power*, op.cit. p. 208.

⁴⁶ *Ibidem*, p. 224.

kontrairaultzak Estatu Batuek espero zuten arrakasta izan zuten. Hala ere, kontrairaultzak ez zuten herriak iraultzan hartu zituen balioekin hautsi, eta Iraultzak, nolabait, Txileko gizartean jarraitzen du.

Kontrairaultzak funtsezko garrantzia du Iraultza garatzeko, eta, gainera, asko du esateko barneko eta nazioarteko indarrek nazioarteko ordenaren funtzionamenduan nola eragiten duten inguruan⁴⁷. Izan ere, Hallidayk dioen bezala: "Counter-revolution, a universal accompaniment of all revolutions, is as international as revolution itself: it is, as much as revolution, a constitutive element in the modern history of international relations"⁴⁸. Izan ere, "Like revolution, counter-revolution generates and internationalised ideological and psychological atmosphere that goes beyond the policies of states"⁴⁹. Bere ikuspegi eta izaerari dagokienez, Kontrairaultza Iraultza bezain internazionalista da. Kontrairaultzaren helburua Estatu iraultzaileek ordezkatzten duten erronka hirukoitza (arauemailea, ideologikoa eta estrategikoa) mantentzea da⁵⁰.

Ameriketako Estatu Batuek, batez ere, Gerra Hotzeko urteetan, kontrairaultzak finantziatu zituzten: "many U.S. administrations, particularly during the Cold War, chose to actively support counter-revolutionary movements"⁵¹. Estatu Batuetako administrazioek Amerika jotzen zuten bere eragin-eremutzat. Horregatik, Estatu Batuek erregimen horiek babestu zituzten. Laguntza horretan, funtsen hornidura, entrenamendua eta armak sartu zituzten. Guda Hotzean zehar autoritarismoaren Kontrairaultza moduan estatubatuarren babesaren justifikazioa, sarritan, iraultza baten mehatxuarekin legitimatzen zen. Estatu Batuek Iraultzak komunismoaren inposizioa eta Sobietar Batasunaren eragina indartzea ekarriko zituela argudiatzen zuten⁵².

Statu quo-aren defentsa egiten duten potentziek iraultzen eta erreformen hedapenaren aurka egiten dute, eta erregimen horiekin amaitu nahi dute, beren boterea kolokan ikusten dutelako: "the United States saw its sphere of influence in South and Central America as jeopardized by Cuban activities in the region"⁵³.

Historia modernoan zehar, erregimen kontrairaultzaileek ordena zaharra berrezartzeko egindako saiakerak, sarri, "Izu zuria" piztu du⁵⁴. Era berean, antzinako

⁴⁷ "Counter-revolution, order and international politics" op.cit. p. 51.

⁴⁸ *Revolution and world politics: The rise and fall of the sixth great power*, op.cit. p. 207.

⁴⁹ Ibidem, p. 209.

⁵⁰ "Counter-revolution, order and international politics" op.cit. p. 55.

⁵¹ *Anatomies of revolution*, op.cit, p. 28.

⁵² Ibidem, pp. 28-29.

⁵³ *Revolution and world order: The revolutionary state in international society*, op. cit. p. 293.

⁵⁴ *Dynamics of Counter-Revolution in Europe, 1870-1956*, op.cit. p. 97.

ordenaren aldekoak, sarritan atzerriko potentzien laguntzarekin, erregimen berriarekin amaitzen saiatu dira Kontrairaultza baten bidez. Eskualdeetako taldeak edo gutxiengoak botere gehiagoren alde edo politika iraultzaileen aurka borroka daitezke. Asaldura horiek inflazioa edo kolapso ekonomikoa eragin dezakete, eta horrek gerra zibila edo nazioarteko gerra ekar dezake. Lider iraultzaileak oso banatuta egoten dira krisi horiei nola erantzun jakiteko⁵⁵. Txileren kasuan, gerra zibila ez zen gertatu, baina inflazioa eta kolapso ekonomikoa piztu ziren herrialdean.

Iraultza bertan behera uzteko kanpoko ahaleginak barne borrokei lotuta egon daitezke, baina hemengo kezka nagusia kanpoko eragileena da, batez ere Estatuena, Estatu iraultzaile batek planteatzen duen erronka ezabatzerantz behartuta sentitzen baitira⁵⁶. Beraz, kanpoko Estatuak duten erantzuteko modua Kontrairaultza da.

Iraultzaileak zein kontrairaultzaileak Estatuaren sistemari eta nazio-sentimenduari aurre egiten saiatzen dira: esku-sartzerik ezaren printzipioaren aurka, betebeharrak gorenak aipatzen dituzte esplizituki, eta horren arabera jokatzeko dute. Nazioarteko helburu horiek lortzeko Estatuaren sistemaren menpe daudenez, porrot egiteko joera dute. Hala ere, epe luzera, gizartearen arteko loturak eta batzuek besteengan dituzten frogapen-ondorioak Estatuak gaitzen eta ahultzen dituzte. Gainera, iraultzaileek eta kontrairaultzaileek aurreikusitako ez zuten moduan eta epe batean egiten dute⁵⁷.

Gerraosteko munduaren eraketari dagokionez, gerrillen gerra, forma iraultzaile eta kontrairaultzailean, arma nuklearrak bezain eraginkorrak izan ziren gutxienez. Horien garrantzia, berriz ere, Estatu Batuek iraultzarekin izan zuten jarreraren ikus daiteke: atzera begiratu, Estatu Batuetako estrategia kontrairaultzailea, propaganda kanpainetatik entrenamendu paramilitarreraino iritsi zen espektro zabaleko programa, gehiegizko kontrairaultzaren lekukotza bezala agertzen da⁵⁸. Hala ere, kontrairaultzarekiko konpromisoak eta *statu quo*-aren potentziek zabaldu zituzten baliabideek ez zuten lortu nahi izan zuten emaitza zehatza. Kontrairaultzaren historia gaitasunean oinarritutako ebaluazioak iradoki lezakeena baino anitzagoa eta askoz ere arrakastarik gabekoa da⁵⁹.

Hori dela eta, ezin ditugu Iraultzak eta Kontrairaultzak bigarren maila batean jarri. Izan ere, Iraultzak eta horiek sailhestea, modernizazio autokratikoaren, erreforma-

⁵⁵ *Revolutions. A Very Short Introduction*, op.cit. p. 90.

⁵⁶ "Counter-revolution, order and international politics" op.cit. p. 52.

⁵⁷ *Revolution and world politics: The rise and fall of the sixth great power*, op.cit. pp. 232-233.

⁵⁸ Gleijeses, Piero, *The Cuban Drumbeat*. London: Seagull, 2009.

⁵⁹ *Revolution and world politics: The rise and fall of the sixth great power*, op.cit. pp. 230-231.

programen edo kontrairaultzaren bidez, ez dira noizbehinkako gertaerak; eta, gainera, munduko historia modernoaren oinarritzat hartu daitezke⁶⁰. Bi gertaerek garrantzi handia dute, askotan kontuan hartzen ez dena, Nazioarteko Sistemari, eta horren erakusgarri dira XX. mendean Iraultzak geldiarazteko egindako saiakerak, kontrairaultzen bidez eta Estatu Batuetako presidentek Guda Hotzean hartutako doktrinaren bidez. Izan ere, Hallidayk dioen bezala: "So central is this recurrence of both revolution and counter-revolution that it has come to be one of the dominant themes of modern international history"⁶¹.

3. Amerikako estatu batuen kanpo-politika

Txileko Estatu kolpean Estatu Batuek izan zuten eragina ulertzeko beharrezkoa da Gerra Hotzaren urteetan bloke hegemonikoak zuten kanpo politika ezagutzea. Izan ere, Estatu Batuek Latinoamerikarekiko izan duten politika historikoa, orokorrean, epe luzerako politika izan da beti, esku-hartzeari, bazterketari, hegemoniari, eusteari eta botere-orekari dagokienez. Estatu Batuen kanpo-politika, alde batetik, eskualdeko egonkortasunari eustera eta atzerriko potentziak urruntzera bideratuta egon da, eta, bestetik, Ipar Amerikako oinarritzako interesak babestera⁶². Kontuan hartzekoa da 1894 eta 1924 artean Estatu Batuek hogeita bat aldiz esku hartu zutela militariki Latinoamerikan⁶³.

3.1. 1945-1953: Nazioarteko sistema bipolarraren eraketa eta gerra hotzaren hasiera

Estatu Batuek hasieratik lortu nahi izan zuten munduko eragin politikoa irabaztea, nagusitasun ekonomikoa lortzea, abantaila militar erabakigarria lortzea, munduko eremuak kontrolatzeko aliantzak sortzea, Nazio Batuen kontrola izatea eta Sobietar Batasunaren inguruan esparru estrategiko bat ezartzea. Horregatik, Sobietar Batasunera ideologikoki hurbiltzen zen herrialde oro bere etsai bihurtzen zen.

⁶⁰ *Anatomies of revolution*, op.cit, p. 7.

⁶¹ *Revolution and world politics: The rise and fall of the sixth great power*, op.cit. p. 211.

⁶² Carbone, Valeria Lourdes, "Cuando la Guerra Fría llegó a América Latina. La Política Exterior Norteamericana hacia Latinoamérica durante las presidencias de Eisenhower y Kennedy (1953-1963)". *Centro Argentino de Estudios Internacionales*, 27, 2006, p. 7.

⁶³ Hidalgo, Rafael, "Estados Unidos y América Latina bajo la presidencia de Carter". *Estudios Internacionales*, 1978, p. 87.

Gerra Hotzaren lehengo urteetan, bi ezaugarri izan ziren nagusi: alde batetik, bi botere-poloen arteko tentsio gorena eta, bestetik, lasterketa armamentistikoa gero eta handiagoa. Urte horietako lider politiko berrien gorakadarekin, bai Estatu Batuetan, bai Sobietar Batasunean ere, Gerra Hotzaren aro berri bat hasi zen, "Koexistentzia baketsua" bezala ezagutzen dena⁶⁴.

Harry Truman (1945-1952) izan zen aro berri horretako lehen Estatu Batuetako presidentea. Presidenteak, 1947an, Estatu Batuek Grezian, Turkian eta, hedaduraz, Iranen garaipen komunista eragozteko konpromisoa aldarrikatu zuen⁶⁵. Izan ere, une horretan Yaltaren konpromisoak hautsita zeuden. Estatu Batuetako gobernuak Latinoamerika eskualdeko babes lortu nahi izan zuen bere Gerra Hotzeko politiketan. Hori dela eta, 1947an, nazio amerikar guztiak sinatutako segurtasun kolektiboko itun baten sinadura babestu zuen, alegia, Rioko Ituna. Urte horretan bertan, Estatu Batuek TIAR (*Tratado Interamericano de Asistencia Recíproca*) "Elkarrekiko Laguntzarako Amerika arteko Ituna" sortzea bultzatu zuten, eta, handik eta urtebetera, Bogotako Ituna hitzartu zuten. Itun horrek segurtasunerako eta lankidetzak kolektiborako osagai bat ekarri zuen erasorik gertatuz gero, eta erakunde hori AEE (Amerikako Estatu Erakundea) bezalako eskualde-erakunde baten eraketan instituzionalizatu zen. Helburua zen komunismoaren sarrera galaraztea "Monroe doktrinaren" formulaziotik iparramerikar barruti pribatutzat jotzen zen eskualde batean, non amerikar inbertitzaileek paper garrantzitsua jokatzen zuten Erdialdeko eta Hego Amerikako ekonomietan, eta bere eragina ia eztabaiaezina zen⁶⁶. Azken batean, Estatu Batuek euste-politika bat zuten, eta beren helburua zen komunisten aurrerapena eragozteko, edo, Txileren kasuan bezala, ezkerreko edo joera nazionalistako gobernuarekin amaitzea.

Dimentsio estrategikoa biziberritzeko eta kanpo-politika defendatzeko testuinguru horren barruan, Estatu Batuetako eta "mundu libreko" segurtasun-eremua indartzeko helburuarekin, Latinoamerikari balioa ematen zaio, eremu estrategiko seguru gisa duen garrantziagatik. Latinoamerikak Estatu Batuen kanpo-politikan duen rola birtxertatze hori "atzeko patioaren" teoriaren bertsio berri bat da; funtsean, eremua interes estrategiko handikoa da Estatu Batuentzat, eta eragin-eremu segurua. Beraz, ezin da onartu kontinentez kanpoko potentzien esku-hartze politiko edo ideologikorik; are gutxiago esku-hartze militarra. Hortaz, Estatu Batuek aurkako ekintzat jotzen dute

⁶⁴ De la Contienda, Gal, "La política exterior de Estados Unidos de América". *Anuario Internacional CIDOB 2009*, p. 511.

⁶⁵ *Revolution and world politics: The rise and fall of the sixth great power*, op.cit. p. 218.

⁶⁶ "Cuando la Guerra Fría llegó a América Latina. La Política Exterior Norteamericana hacia Latinoamérica durante las presidencias de Eisenhower y Kennedy (1953-1963)", op.cit. pp. 6-7.

printzipio horren aurkako bortxaketa-ekintza oro, eta izaera horretako ekintzen aurrean esku hartzeko eskubide legitimoa zutela sentitzen zuten⁶⁷.

3.2. 1953-1969: Aldi bereko existentzia eta lehia

1953ko urtarrilean iritsi zen boterera Dwight Eisenhower. Boterera iritsi zenean, Nikita Krushev-ek gauzatutako kanpo-politika sobietarra berbideratzen ari zen, Estatu Batuekiko harremanak hobetzeko borondatea ezaugarri zuena, nahiz eta boterea eta mundu-mailako eragina lortzeko lehian jarraitzen zuten⁶⁸. Hala ere, Eisenhower Administrazioak hartutako politikak ez zirudien asmo berbera zuenik. Dena dela, bi aldeetako politikak berbideratzeak, hau da, Estatu Batuenak eta Sobietar Batasunarenak, ez zuen aldatu Estatu Batuek Latinoamerikarekiko zuen kanpo-politika.

Eisenhower Administrazioaren politika ez zen soilik Latinoamerikako diktadoreekin harreman adeitsuak ezartzera mugatu, baizik eta eremu politiko kontinentalen "baimentzearen" fenomenoaren eragile aktibo bezala ere funtzionatu zuen. Zentzu honetan, CIAk 1954an Jacobo Arbenz-en presidentetza nazionalista botatzera eramanean zuen kolpean jokatu zuen papera, 1952ko hasieran guatemalarrak legitimoki aukeratu zutena, benetan adierazgarria da⁶⁹.

Bere ondorengoak, John Fitzgerald Kennedy-k (1961-1963), bere aurrekoaren "errepresalia masiboen" aurkako "erantzun malguko" estrategian oinarritutako kanpo-politika bat asmatu zuen. Bere agintaldian Kubako Cochinos badiako inbasioa baimendu zuen (1961) eta herrialde horretako Misilen Krisiari aurre egin zion (1962), Ipar Amerikako kanpo-politikaren historian une gorena, bi potentzia mundialak gerra nuklearraren atarira eramanean baitzituen⁷⁰. Era berean, 1961ean, Kubako Iraultzaren aurrean, Kennedyk kanpaina bat abiarazi zuen Estatu Batuetako aliatuak Hirugarren Munduan finkatzeko, prebentziozko erreforma eta kontrainsurgentzia konbinazio baten bidez⁷¹. Vietnamgo Gerraren hasiera Kennedyren presidentetza laburrean beste mugarri

⁶⁷ Lagos, Gustavo eta Plaza, Oscar (1985). "La actual política exterior norteamericana y su proyección en América Latina". *Estudios Internacionales*, p. 69.

⁶⁸ "Cuando la Guerra Fría llegó a América Latina. La Política Exterior Norteamericana hacia Latinoamérica durante las presidencias de Eisenhower y Kennedy (1953-1963)", op.cit. p. 8.

⁶⁹ Pettinà, Vanni, "Del anticomunismo al antinacionalismo: la presidencia Eisenhower y el giro autoritario en la América Latina de los años 50". *Revista de Indias*, 67(240), 2007, p. 575.

⁷⁰ "La política exterior de Estados Unidos de América", op.cit.

⁷¹ *Revolution and world politics: The rise and fall of the sixth great power*, op.cit. pp. 218-219.

bat izan zen, Gerra Hotzaren ikur handienetako baten eraikuntza ere izan zen bezala, alegia, Berlingo harresia. Bestalde, diplomazia aktiboa garatu zuen Latinoamerikan; Truman eta Eisenhowerrek ez bezala, Kennedyk Aurrerapenerako Aliantza sortu zuen, Hego Amerikako herrialdeei 20.000 milioi dolar ematen zizkien programa, euren ekonomiak modernizatzeko, komunismoari eusteko lagungarri gisa⁷².

“Aurrerapenerako Aliantza” taktika Estatu Batuek zuzendutako izaera kontinentaleko aliantza estrategiko bat izan zen, 1961ean Punta del Esteko ituna sinatu ondoren Txile atxiki zitzaiona. Bere helburua Kubako Iraultza eta horrek Latinoamerika osoan izan zuen eragina kontrolatzea izan zen, uhartetik jasotako diskurtsoak "kutsatuak" izateko arriskuan zeuden herrialdeei laguntza ekonomikoa emateko programetatik abiatuta. Izan ere, uharteak, euren etsaiek esanetan, arazo handiak zituen, hala nola pobrezia, ustelkeria, nekazaritza-jabetzaren banaketa kaxkarra, eta abar. Hala ere, Kubak egia ez zela baieztatu zuen. Estatu Batuen ideia aldarrikapen-diskurtso horri aurre egitea izan zen, erreforma politiko baten bitartez. Estatu Batuek bere ardatz ideologiko berdinean zeuden herrialdeentzako laguntza ekonomikoa eskaini zuen⁷³.

Lyndon Johnson-ek (1963-1968) 1965eko maiatzaren 1ean aldarrikatu zuen bere doktrina, Dominikar Errepublikaren inbasioarekin, herrialde horretako altxamendu bati erantzunez. Hilabete bat geroago, eta doktrinaren izena aipatu gabe, konpromiso katastrofiko bihurtu zen bere doktrina, Vietnamera milioi erdi borroka-tropa estatubatuar baino gehiago bidaliz⁷⁴. Gainera, presidenteak etengabeko bonbardaketak agindu zituen Hanoiren aurka eta Asiako lurretan tropak gehitu zituen espero ziren emaitzak lortu gabe, iritzi publiko estatubatuarra gerraren aurka gero eta gehiago agertzen zen bitartean. Bere aldetik, komunismoaren hedapenaren beldurrez, Latinoamerikan polizia eta militarren entrenamendua areagotu zuen, 60. hamarkadako estatu-kolpeei laguntza emanez, eskualdean gobernu militar autoritario ugari boterera eramanez zituztenak⁷⁵.

Lyndon Johnsonen urteetan, Estatu Batuek Txileko politikan parte hartzen jarraitu zuen, ITT (*International Telephone and Telegraph*) bazkide nagusi zutela. Estatu Batuek, aurrerago ikusiko dugun bezala, Allenderen aurkako alderdiak finantzatzera bideratutako kanpo-politika mantendu zuten, azken horrek boterea lor ez

⁷² “La política exterior de Estados Unidos de América”, op.cit. p. 512.

⁷³ Jara, Iñaki, “Bipolaridad en Chile 1960-1973”. *Revista Austral de Ciencias Sociales*, (5), 2017, p. 45.

⁷⁴ *Revolution and world politics: The rise and fall of the sixth great power*, op.cit. pp. 218-219.

⁷⁵ “La política exterior de Estados Unidos de América”, op.cit. p. 512.

zezan, edo, geroago, Unidad Popular kentzeko helburua zuen kanpo-politika aurrera eramanez.

3.3. 1969-1979: Distentsioa eta nazioarteko ordena ekonomiko berria

Bi superpotentzien barne arazoaren ondoren, garai hartan konfrontazio-profil gutxiago eta nolabaiteko pragmatismoa hartu zen bere kanpo-politiketan. Hala ere, garai hartako ezaugarri bereizgarriena Latinoamerikako kolpismo militarra da, eta horren adibide dira El Salvador, Ekuador, Uruguai, Txile, Peru eta Argentina.

Vietnamgo ezbeharren ondorioz, Johnsonen ondorengoa zen Richard Nixon-ek (1969-1974) "Nixon doktrina" aldarrikatu zuen 1969an: Johnsonenak ez bezala, Estatu Batuetako indarrak Hirugarren Munduko gatazketan inplikazio zuzenetik kentzearen eta erantzukizunaren eskuordetzearen alde egiten zuen⁷⁶. Nixon presidentearen agintaldian, Txileko estatu-kolpea planifikatu eta gauzatu zen. Estatubatuarren interes ekonomiko pribatuak Allenderen ideologia marxistako gobernu demokratikoarekin amaitzeko gai izan ziren. Allenderen afiliazio ideologikoa eta bere koalizioa izan ziren Estatu Batuen arrazoi nagusia Allenderen gobernuarekin amaitzeko.

"Watergate" eskandaluak Nixonek presidentetza uztea eragin zuen. Nixonen ondorengoak, Gerald Fordek (1974-1976), ez zuen doktrinarik izan, baina praktikan zuhurtasun estrategikokoa izan zen, bereziki Estatu Batuek Saigonen eta Vietnamen zituzten aliatuak defendatzeko edo Kubako indarrek Angolan esku hartzea saihesteko aurrera eramanez bidea⁷⁷.

Bere agintaldi laburrean, Sobietar Batasunarekin distentsio politikarekin jarraitu zuen, Arma Estrategikoak Mugatzeko Ituna (SALT) eta Bigarren Mundu Gerraren ondorengo Europako mugak berresten zituen Helsinkiko Akordioa sinatu zituen. Ekialde Ertainean, Israel eta Egipto konbentzitu zituen su-etena lor zezaten, Camp Davideo ondorengo bake-akordioaren preludea, bere oinordekoak sinatuko zuena⁷⁸.

Baliteke Jimmy Carter-ek (1977-1980) Hirugarren Munduko gatazketan parte hartzea saihestu izana, baina Iran eta Afganistanen ondoren doktrina bat ere aldarrikatu zuen: Arabiar Penintsularen eta Pertsiar Golkoko Estatuaren defentsa. Doktrina horren

⁷⁶ *Revolution and world politics: The rise and fall of the sixth great power*, op.cit. p. 219.

⁷⁷ Idem.

⁷⁸ "La política exterior de Estados Unidos de América", op.cit. p. 513.

ondorioz, Estatu Batuek gero eta garrantzi handiagoa hartu zuten Iranen aurkako Irakeko gerrari laguntzeko eta, ondoren, Kuwaiten inbasio irakiarra iraultzeko esku-hartze masiboan⁷⁹.

Era berean, bere estrategia berriak *Trilateral Commission* izeneko erakunde batek formulatutako teorizazioak eta planak zituen abiapuntu, eta erakunde hori oinarrizko hiru helburutara bideratuta zegoen: Estatu Batuetako barne-politikara, kanpo-politikara eta nazioarteko kapitalismoaren politika globalera⁸⁰.

Orokorrean, baina bereziki Carter-en administrazioarekin, Estatu Batuen giza eskubideen aldeko ekintzak direla eta, Hego konoko faxismoa oztopo bat bihurtu zen Latinoamerikako helburu iparramerikarrentzat. Hala ere, Txileren kasuan, Estatu Batuek Pinochet jarri zuten herrialdearen buru, Unidad Popularreko gobernuari aurre egiteko zegoen alternatiba bakarra. Estatu-kolpea eta gero Estatu Batuetan agintean egon ziren presidente guztiek harreman estuak izan zituzten Txileko diktadorearekin.

4. Salvador allenderen gobernu urteak

Salvador Allende hautetsi berria izan aurretik, Estatu Batuetako gobernuak bi plan antolatu zituen presidente izatea galarazteko. Alde batetik, eskuinaren botoak batzeko kanpaina egin zuen Jorge Alessandriren aldeko kongresuan, gero eskuina Eduardo Freioren inguruan batzeko helburuarekin bere postuari uko egingo ziona. Hala ere, planak porrot egin zuen, demokristauen buruzagiak Allenderen garaipena onartu baitzuen. Bestetik, Estatu Batuek proposatu zuten bigarren plana Schneider jenerala bahitzea izan zen, kaosa sortzeko asmoz. Hala ere, bigarren plan horrek ere porrot egin zuen, militarra hil zutelako⁸¹. Horrela ikus daiteke Allendek boterea hartu aurretik ere inperialismo⁸² estatubatuarrek ez zuela nahi presidente sozialistak boterea hartzea.

⁷⁹ *Revolution and world politics: The rise and fall of the sixth great power*, op.cit. p. 219.

⁸⁰ Cannabrava, Paulo, "Carter y la Trilateral". *Nueva Sociedad*, 40, 1979, p. 73.

⁸¹ Beluche, Olmedo, "Golpe de estado en Chile lecciones para la historia". *Archipiélago. Revista cultural de nuestra América*, 28, pp. 25.

⁸² Inperialismoa nazio zapalduen eta nazio zapaltzaileen arteko harreman-sistema bat bezala ulertzen da, non lehenengoek bigarrenak esplotatzen dituzten, baliabide ekonomiko eta estraekonomikoen bidez, periferian sortutako aparteko balioaz jabetuz.

4.1. 1970eko hauteskundeak

1964tik aurrera, Estatu Batuek Txilen zituzten interesak oso argi zeuden, alegia, potentziak interes ekonomiko handiak zituen Hego hemisferioko herrialdean. Hori dela eta, Estatu Batuei kalte ekonomikoak eragin ziezazkiekeen buruzagi marxista baten igoera boterera saihesteko eta Amerikan nahi ez zen eragin sobietarra ahalbidetzeko, herrialdeak alderdi demokrata-kristatua babestu zuen. Azken finean, Estatu Batuak politika moderatu eta erreformista eta konfiantzazko buruzagi erreformista babesten ari ziren, alegia, Eduardo Frei Montalva, Salvador Allenderen oposizio nagusiena zena⁸³. Estatu Batuek Allende boterea hartzea eragozten saiatuko lirateke, eta, horretarako, laguntza ekonomikoen bidez ez ezik, iragarritako estatu-kolpe batean parte-hartuko lukete.

Ezkerreko alderdien arteko gatazkak saihestu nahian, Unidad Popularra sortu zen. Horretan, ezkerreko alderdiak koalizio-alderdi bakarrean bildu ziren. Allenderen garaipenak boterean aldaketa garrantzitsua eragingo luke, "sozialismorako trantsizioa" lortzea baitzen bere helburua. Txilen Iraultza batek izango zuen garrantziak eta izango zituen ondorioak Estatu Batuen interesen kontra gogor jotzen zuten.

Txileko alderdi politiko nagusiak 1970eko hauteskunde presidentzialetarako mobilizatzen hasi zirenean, Washingtoneko arduradun politikoek Unidad Popularrak botere politiko nazionala hautestontzien bidez lortzeko aukerari aurre egin behar izan zioten. Allende presidentetzarako hautagai aurkeztu zen 1952an, 1958an eta 1964an, eta gero eta boto gehiago lortzen joan zen⁸⁴. Estatu Batuek arrisku handitzat hartu zuten Allenderen balizko garaipena, ekintza horrek Hego Konoan beraien eragina galtzera eramango baitzuen. Horregatik, Txilen eragin marxista murrizteko operazio batzuk hasi ziren, hau da, ez zen Iraultza hasi herrialdean eta jada Estatu Batuak Kontrairaultza prestatzen ari zen.

1970eko martxoaren 25ean, John Crimmins-en, Amerikarteko Gaietarako Estatu Idazkariorde Nagusiaren, memorandum batek zera eskatu zuen: 40 Batzordeak proposamen bat onar zezala Allenderen aurkako maila baxuko eta ezkutuko ekimen

⁸³ Gustafson, Kristian, *Hostile intent: U.S. Covert Operations in Chile, 1964-1974*. Washington D.C.: Potomac Books, 2007, p. 79.

⁸⁴ Morley, Morris eta McGillion, Chris, *Reagan and Pinochet: The Struggle over U.S. Policy toward Chile*. Cambridge: Cambridge University Press, 2015, p. 13.

politikoei laguntza emateko. Ekintza horretarako 125.000 dolar onartu ziren⁸⁵. Hala ere, Jorge Alessandri-rentzako, Alderdi Nazionaleko presidentegaiarentzako, babes bezala ezin zela interpretatu azpimarratu zuten. Bestalde, CIAk ezkutuko esku-hartzearen alde egin zuen, baina Gerra Hotzeko termino tradizionalagoetan, hau da, Moskuri mezu bat bidaliz Latinoamerikan beste hondartza-buru bat ezartzeko edozein saiakera sobietarren aurka zegoela argi uzteko.

Urtearen erdialdean, Etxe Zuriak Txile "lehentasun handiko" gai izendatu zuen, eta CIA estatus hori justifikatzeko prest zegoela zirudien, Txilen gobernu ezkertiar bat egoteak Estatu Batuen interesen aurkako mehatxua zelako⁸⁶. Horregatik, 1970eko ekainaren 27an, 40 Batzordeak Allenderen aurkako propagandarako 300.000 dolar onartu zituen. Hurrengo hilabetean, ITTk 350.000 dolar bidali zituen Alessandriren kanpainara⁸⁷. Gainera, nahiz eta Estatu Departamentua guztiz ados ez egon, 40 Batzordeak baimena eman zion enbaxadako taldeari operazio-programa erasokor bat hasteko⁸⁸.

1970eko irailaren 4an, Unidad Popularrak, Salvador Allende presidente izateko hautagai zuela, hauteskundeak irabazi zituen botoen % 36,3rekin. Bigarren hautagai bozkatuena Alderdi Nazionala izan zen, botoen % 34,9 eskuratuta. Hirugarrena Alderdi Demokrata-Kristaua izan zen, botoen % 27 lortu ondoren⁸⁹. Allenderen garaipena porrota izan zen Estatu Batuentzat. Potentziak ikusi zuen Allenderen gobernuak Washingtonen kontrolpetik kanpo zegoen kanpo-politika eta ekonomia programa bat zuela. Gainera, txiletarren adibidea Hirugarren Munduko beste herrialde askotara hedatzeko aukera zegoen⁹⁰. Horregatik, 4 egun geroago, 40 Batzordeak⁹¹ 250.000 dolarreko laguntza onartu zuen. Laguntza hori Korry-rentzat, Estatu Batuek Txilen zuen enbaxadorearentzat, zen, eta bere helburua urriaren 24an Kongresuan egingo zen bozketan Allende herrialdeko presidente aukeratu ez zezaten lortzea zen⁹².

Azken finean, Allendek presidentetzarako hauteskundeak irabazi zituen, nahiz eta Estatu Batuek ekintza hauek aurrera eramane izan: 1964 eta 1969 artean CIAk

⁸⁵ Cockroft, James eta Canning, Jane, "Chronology: Chile 1970-73", Aguilera, P. eta Fredes, R. (ed.). *Chile, the other september 11: an anthology of refractions on the 1973 Coup*. Australia: Ocean Press, 2006, pp. 178-179.

⁸⁶ *Reagan and Pinochet: The Struggle over U.S. Policy toward Chile*, op.cit. pp. 13-15.

⁸⁷ "Chronology: Chile 1970-73", op.cit. pp. 179-180.

⁸⁸ *Hostile intent: U.S. Covert Operations in Chile, 1964-1974*, op.cit. p. 102.

⁸⁹ *Ibidem*, p. 107.

⁹⁰ Figueroa, Victor, *Salvador Allende. Revolutionary Democrat*. London: Pluto Press, 2013, pp. 13-15.

⁹¹ Inteligentziako operazio sekretuak onartzeaz arduratzen zen Estatu Batuetako Segurtasun Nazionaleko Kontseiluaren organoa.

⁹² *Hostile intent: U.S. Covert Operations in Chile, 1964-1974*, op.cit. p. 108.

ezkutuko ekintzetan bi milioi dolar inbertitu zituen, Estatu Batuetako gobernu agentziek eta bere kontrolpeko gobernu erakundeek Frei-ren gobernuari ofizialki 3.055 milioi dolar eman edo mailegatu zizkioten, eta konpainia multinazionalak eta Estatu Batuetako gobernuak presidentetza-kanpainan 1.700.000 dolar inbertitu zituzten. Hala ere, Estatu Batuek ezin izan zuten Allenderen gobernuaren sarrera geldiarazi. Horrela, 1970eko azaroaren 3an, Allende hauteskunde demokratikoen bidez boterea hartzen zuen lehen presidente marxista bihurtu zen.

4.2. Estatu batuen eragina salvador allenderen gobernu urteetan

1970eko irailaren azken egunetan, CIAk hamar herrialde desberdinetako kazetariak zituen Txilen. Gainera, egun horietan talde hori bost herrialdeetako beste zortzi kazetarik indartu zuten, masa-komunikabideen esparruan zuzendaritza-lanetan ziharduten goimailako agenteen zuzendaritzapean. Ikusten denez, Estatu Batuen inbertsioa oso handia izan zen Allenderen gobernuaren aurkako kanpaina mediatiko handia egiteko.

Allendek 1971n adierazi zuen ez zuela Estatu Batuekiko borondate txarrik, nahiz eta Nixonek Allende zoriondu ez izan bere garaipenagatik. Nixoni ez zitzaizkion Allenderen promesak axola eta Txilerekiko politika gogorra izaten jarraitzen zutela esan zuen⁹³. Nixonen gobernuaren helburuetako bat Allendekin amaitzea zen. Hori dela eta, urtarrilaren 28an, 40 Batzordeak 1.240.000 dolarreko inbertsioa onartu zuen, alde batetik, irrati eta egunkariak erosteko eta, bestetik, Allenderen aurkako alderdiei udal-hauteskundeetan eta beste jarduera politiko batzuetan laguntzeko. Guztira, 2,6 milioi dolar gastatu ziren Alderdi Demokrata-Kristaua, Alderdi Nazionala eta Alderdi Erradikalaren zatiketak babesteko⁹⁴.

Allenderen gobernuak kobrezko meategiak nazionalizatzeko hartutako erabakia kolpe gogorra izan zen Estatu Batuentzat, Nixon beldur baitzen Txileko desjabetzeek Latinoamerikako gainerako lurraldeei eta baita mendebaldeko hemisferioari ere adibidea emango ote zieten. Presidenteak arretaz entzun zuen John Connally-ren, Ogasun Saileko Idazkariaren, aholkua, eta ildo gogor baten alde egin zuen. Bere aldetik, Nixonek

⁹³ *Nixon, Kissinger, and Allende: U.S. Involvement in the 1973 Coup in Chile*, op.cit. p. 85.

⁹⁴ "Chronology: Chile 1970-73", op.cit. p. 115 eta *Hostile intent: U.S. Covert Operations in Chile, 1964-1974*, op.cit. p. 160.

ezkutatu egin zituen Allenderen aurkako ezkutuko ekintzak, Txilerako politika ofiziala hego hemisferioko herrialdeentzako ohartarazpen gisa erabili nahi zuen arren⁹⁵.

Kissingerrek Nixoni ohartarazi zion murriztailea zen politika bat funtsik gabekoa izango zela Txileri buruzko bere adierazpen publikoekin. Gainera, Kissingerrek uste zuen politika horiek bai Txile barruan baita atzerrian ere Allenderi sinpatia irabazten lagunduko ziotela, horrela enpresa estatubatuarren tratamendu bidegabea erraztuz⁹⁶.

Anacondaren barne-memorandum batek erakusten du kobre-konpainiak ITTrekin lan egin zuela segurtasun nazionalako aholkulariarengan eragiteko⁹⁷. Kissingerrek Txilerekin erabateko gerra ekonomikoa hasi zuen, bere helburu nagusia herrialdeko arazo ekonomikoak areagotzea zelarik, Allenderen gobernuaren herrialdean finkatu ez zedin.

Allendek aurreikusi zuen kobrearen industria Estatuaren kontrolpean egoteak bere herrialdea aberastu egingo zuela, baina ekintza horrek kobrea Estatu Batuetara esportatzea erabat ezinezko bihurtu zuen. Era berean, Txileko presidentek Mendebaldeko Europara merkatu alternatibo gisa jo zuenean, Kennecott, Estatu Batuetako enpresa kuprifera bat, bere planak zapuzten ahalegindu zen, eta, gainera, lortu egin zuen. Konpainiak neurri legalak hartu zituen Frantzia, Holanda, Suedia, Italia eta Alemanian, eta kobrearen salmenta blokeatu egin zuen⁹⁸. Bestalde, Txileko telefono-zerbitzua eskuragarriagoa izan zedin, Allenderen gobernuak Chiltelco-ren erabateko kontrola hartu zuen, horren % 70aren kontrola ITTk zuelarik⁹⁹.

Paul Wimert koronelak ofizial gazteak antolatu zirela eta gobernuaren kontrola hartzeko plan bat zutela adierazi zuen. Dena dela, lider baten falta zuten¹⁰⁰. Argi eta garbi, Washingtonek zuzendu zuen gertakizun hau. Estatu Batuetako politikariek estatuko kolpea nahi zuten, nahiz eta ekintza goiztiarren aurka egon. Txileko ofizial militar batzuk 1972ko udaberrirako estatu-kolpe bat prestatzen ari zirela jakinarazi zieten Amerikako Estatu Batuei. Hori dela eta, 1971ko ekainaren 30ean, Estatu Batuetako

⁹⁵ *Nixon, Kissinger, and Allende: U.S. Involvement in the 1973 Coup in Chile*, op.cit. p. 88.

⁹⁶ *Ibidem*, p. 90.

⁹⁷ *Idem*.

⁹⁸ *Ibidem*, p. 91.

⁹⁹ *Ibidem*, p. 81.

¹⁰⁰ *Ibidem*, p. 101.

Estatu Departamentuak 5 milioi dolarreko mailegua iragarri zuen Txileko indar armatuentzat, ekipamendu militarra eros zezaten¹⁰¹.

Irailean, Txileko atzerriko korporazio nagusietako buruak William Rogers Estatu idazkariarekin bildu ziren, eta Txileren blokeo ekonomikoa adostu zuten. CIAk "talde kolpista" bat ezarri zuen Estatu Batuek Santiagon zuten enbaxadan, eta milioika dolar ordaindu zizkieten eskuineko taldeei, egunkariei, irratiei eta Txileko politikariei, desegonkortasun kanpaina bizkortzeko. Irailaren 9an, 40 Batzordeak 700.000 dolar onartu zituen *El Mercurio*-ri, Santiagoko egunkari garrantzitsuari, laguntzeko. Horrek Txileko gobernuaren aurkako sedizio ekintzak sustatzen jarraitu zuen, estatu-kolpea barne. Horrez gain, azaroaren 5ean, 40 Batzordeak 815.000 dolarreko laguntza onartu zuen oposizioko alderdiei babes emateko eta Unidad Popularra zatitzen saiatzeko. Urte bereko abenduaren 15ean, 40 Batzordeak 160.000 dolarreko beste laguntza bat onartu zuen 1972ko urtarrileko hauteskundeetan oposizioari laguntzeko¹⁰².

1972ko otsailaren 29an, New Yorkeko Auzitegi Gorenak Txileko gobernuaren banku kontuak blokeatu zituen. Martxoaren 21etik 22ra bitartean jakin zen ITTren dokumentu sekretuek agerian uzten zutela komunikazio-entresak aldi-aldi tratatu zuela CIArekin, 1970ean Allendek presidentetza har ez zezan, edo, bestela, ondoren kargutik botatzeko. Halaber, ITTk 1972ko Estatu Batuetako hauteskunde presidentzialetarako Nixonen kanpaina ehunka mila dolarrekin laguntzea eskaini zuela jakinarazi zen. Era berean, apirilaren 11n, 40 Batzordeak 965.000 dolarreko laguntza onartu zuen *El Mercurio*rentzat, eta 24ean, 50.000 dolar Unidad Popularra zatitzeko¹⁰³.

Irailaren 21ean, 40 Batzordeak 24.000 dolar onartu zituen Allenderen aurkako entresarien erakunde bat laguntzeko. 1972ko udazkenean, CIAk operazio bat hasi zuen Txileko kongresurako hauteskundeetan eragina izateko. CIAk Santiagon aliatu fidagarri bat aurkitu zuen Davis enbaxadorearengan. Diplomatiakoaren laguntzarekin, enbaxadak 1.427.666 dolar eskatu zizkion Washingtoni kanpainarako¹⁰⁴. Abenduaren 8an, Estatu Batuek iragarri zuten 1972ko maiatzean erabaki zutela 10 milioi dolarreko kreditua ematea Txileko indar armatuei, C-130 aireko indarra garraiatzeko hegazkin bat eta beste

¹⁰¹ Ibidem, p. 190.

¹⁰² Ibidem, pp. 192-195.

¹⁰³ Ibidem, pp. 196-198.

¹⁰⁴ *Nixon, Kissinger, and Allende: U.S. Involvement in the 1973 Coup in Chile*, op.cit. p. 117.

ekipamendu batzuk erosteko, hala nola tankeak, soldaduak garraiatzeko ibilgailu blindatuak eta kamioiak¹⁰⁵.

1973ko otsailaren 12an, 40 Batzordeak 200.000 dolar onartu zituen Kongresurako hauteskundeetan oposizioko alderdiei laguntzeko¹⁰⁶. Hala ere, Allenderen Unidad Popularrak hauteskundeak irabazi zituen eta aurrekoetan baino botoen % 7 gehiago lortu zuen.

Hilabeteetako liskar, manifestazio eta greben ondoren, gehienak CIAk finantzatuak, ekainaren 29an, tanke blindatuak Santiagoko zentroaren kontrola hartu zuten eta Defentsa Ministerioari eta Presidentetza Jauregiari eraso egin zieten. Aldiz, gobernuari leialak ziren tropek inguratu eta errenditzera behartu zituzten¹⁰⁷. 1973ko ekainaren 29an armadak gelditu izan zuen estatu-kolpe baten ondoren, CIA oposizioko alderdiak babesten jarraitzeko eszeptiko bihurtu zen¹⁰⁸. Beste alde batetik, kolpea eta gero gobernuaren aurkako mugimenduek aurrera jarraitu zuten.

Azkenean, irailaren 11n, Txileko armadak Salvador Allenderen gobernu demokratikoa boteretik kendu zuen. Kontuan izan behar da horretarako Estatu Batuek 30 milioi dolar baino gehiago eman zituztela kredituetan ekipamendu militarra erosteko, Hain zuzen ere, 5 milioi dolar 1971n, 10 milioi dolar 1972an eta 12,4 milioi dolar 1973an eman zituzten¹⁰⁹.

Estatu Batuetako Segurtasun Nazionalaren Artxiboak argitaratu zituen 2020an aipatutako guztia benetakoa izan zela dioten frogak. Dokumentu horietan, Salvador Allenderen gobernu sozialista ezegonkortzeko Washingtonen estrategiak azaldu ziren¹¹⁰. Horien arabera, CIA ezkutuan saiatu zen kolpe militar prebentibo bat sustatzen, Allendek kargua har ez zezan¹¹¹. Horrela, baieztatzen da Estatu Batuek Kontrairaultza bilatu zutela herrialdean Iraultza hasi aurretik ere.

¹⁰⁵ “Chronology: Chile 1970-73”, op.cit. p. 201.

¹⁰⁶ Idem.

¹⁰⁷ Ibidem, pp. 202-206.

¹⁰⁸ *Hostile intent: U.S. Covert Operations in Chile, 1964-1974*, op.cit. p. 162.

¹⁰⁹ Ibidem, p. 155.

¹¹⁰ Nodal, “Derrocar a Allende: inédito documento prueba que EEUU ordenó “agresión hostil” contra Chile”. Azaroak 11, 2020 Hemen eskuragarri: <https://www.nodal.am/2020/11/si-hay-una-forma-de-derrocar-a-allende-hazlo-documentos-revelan-agresion-hostil-de-eeuu-para-provocar-un-golpe-de-estado-en-chile/>

¹¹¹ National Security Archive (2020). “Allende y Chile: `Derríbalo`”, 2020. Hemen eskuragarri: <https://nsarchive.gwu.edu/briefing-book/chile/2020-11-06/allende-inauguration-50th-anniversary>

Bestalde, dokumentuek agerian uzten dute, Estatu Batuen asmoa ez zela soilik izan Allenderen Unidad Popularra ezegonkortzea, baizik eta Hego Amerikako herrialdean esku hartu zutela 1976an egin ziren hauteskundeetan, momentu hartan oposizioan zeuden alderdien parte-hartzea egiaztatzeke. Azken batean, Estatu Batuek esku hartu zuten Txilen demokrazia eta beraien erakundeak "babesteko". Estatu Batuek eragin erabakigarria izan zuten Allenderen gobernuaren urteetan. Horrez gain, hauteskundeetan aukeratutako gobernu baten estatu-kolpe baten konplize izan ziren.

Estatu Batuek ikusi zuten Allenderen hautaketa sekula aurre egin zioten erronka garrantzitsuenetako bat zela. Nixonen esanetan, Allende gobernu hartu eta hurrengo sei-hamabi hilabeteetan Txilen gertatuko zenak ondorioak izango zituen, eta hori Estatu Batuen eta Txileren arteko harremanetatik haratago joango zen¹¹². Era berean, Estatu Batuek pentsatu zuten Allenderen gobernuaren egonkortzea porrot handiena izan zitekeela potentziarentzat Kubako iraultza gertatu zenetik¹¹³. Hori Iraultzak nazioartekoak direla erakusten duen adibide argia da.

4. 3. Tanquetazo-a: kontrairaultza bortitzaren hasiera

Tanquetazo-a 1973ko ekainaren 29an gertatu zen, hau da, Pinocheten estatu-kolpea baino hilabete batzuk lehenago, eta Unidad Popularreko gobernuaren aurkako altxamendu militar bat izan zen. Kolpe militarra Roberto Souper teniente koronelak zuzendu zuen. Kolpea Txileko Indar Armatuak Unidad Popularreko gobernuarekiko zuten konfiantza galtzearen ondorioz izan zen. La Moneda jauregitik gertu zirkulatzen ari ziren zibil babesgabeen aurkako ekintza militar bortitz horretan guztira hogeita bi pertsona hil ziren. Gainera, 32 bala zauritu eta 50 pertsona atxilotu zituzten¹¹⁴.

Ekainaren 29ko goizean, Allenderen jauregi presidentzialari eraso egin zion Santiagoko Bigarren Erregimentu Blindatuak. Sei tanke, lau rogei soldadu eta hamar tropa-ibilgailurekin Kontrairaultza gailentzen ari zen estatu-kolpea zirudien horretan. Horrela, Roberto Souper teniente koronela buru zuten tropek La Moneda Jauregia eta

¹¹² "Allende y Chile: `Derríbalo'", op.cit.

¹¹³ "Derrocar a Allende: inédito documento prueba que EEUU ordenó "agresión hostil" contra Chile", op.cit.

¹¹⁴ Carmona, Ernesto, "Pinochet usó dos sombreros diferentes, uno con los protagonistas del "tanquetazo" y otro con el presidente Salvador Allende". *Voltairenet.org*. Urriaren 31^a, 2005. Hemen eskuragarri: <https://www.voltairenet.org/article130272.html>

Defentsa Ministerioa inguratu zituzten, Santiagoko erdigunean eraikinen aurka tiro egiteko asmoz.

Altxamendu militarren albisteak hedabide guztietan agertzen hasi ziren. Izua hedatu zen Santiagon, eta inork ez zekien mugimendu horren benetako irismena zein zen. Oposizioko hedabideek altxamendua ospatu zuten eta Gobernuaren kate nazionala transmititzeari uko egin zioten. Goizetik, Allendek seinaleak bidali zituen irrati bidez, erregimenari leial zitzaizkion tropen konfiantza indartuz. Izan ere, Carlos Prats jeneralak gidatu zituen Allenderi leialak izan zitzaizkion tropak¹¹⁵.

Aipatzekoa da langile-klaseak, altxamenduaren esanahia berehala jakin zuenak, herri-eraso handi bat eragin zuela. Fabrika-hartuneak zabaldu ziren eta langileek barrikadak eraiki zituzten. Hala, Santiago inguratu zuten eta periferietatik erdigunerantz brigadetan aurrera egin zuten. Horiakin batera, herri-kontseiluen buru ziren nekazariak lurak hartu, ibilgailuak konfiskatu eta hiriko sarrerak itxi zituzten¹¹⁶. Hau da, Txileko herria saiatu zen Kontrairaultza zirudiena ahal bezala geldiarazten.

Tanquetazo-aren porrota instituzionaltasunaren garaipena izan zen¹¹⁷ eta batez ere Unidad Popularraren iraultzarena. Txileko herriak lortu zuen Unidad Popularraren gobernu defenatzea Kontrairaultzaren aurka. Horren ondoren, CIA-k ikusi zuen militarrek izan zirela krisia geldiarazi zutenak eta, beraz, analista batzuek uste zuten estatu-kolpe arrakastatsua eragiteko aukerarik ez zegoela, alegia, gertakariak 1976ko hauteskundeetara arte Allendekin jarraitzeko lehentasuna indartu zuela. Dena dela, ez zen hala izan¹¹⁸. Era berean, *tanquetazo*-ak erakutsi zuen indar armatuen barruko oposizioa itzaletatik suspertu zela¹¹⁹.

Beste alde batetik, *Tanquetazo*-tik aurrera Txileko egoera erradikalizatu egin zen. Eskuinak sabotaje ekonomikoa areagotu zuen, fabrikak itxiz eta hilketen bidez. Bestalde, langile-klasea industria-hesi deiturikoetan antolatu zen, non ugazabek itxitako fabrikak okupatu eta langileen zuzendaritzapean ekoizten hasi zen, *sobiet* edo langile-kontseilu moduko batzuk sortuz. Gainera, militarrek langileek hartutako lantegietan

¹¹⁵ Andrés, Roberto, "El Tanquetazo: la sublevación militar que anticipó el derrocamiento de Salvador Allende". *La izquierda diario*. Ekainaren 29, 2017. Hemen eskuragarri: <https://www.laizquierdadiario.com/El-Tanquetazo-la-sublevacion-militar-que-antico-el-derrocamiento-de-Salvador-Allende>

¹¹⁶ "El Tanquetazo: la sublevación militar que anticipó el derrocamiento de Salvador Allende", op.cit.

¹¹⁷ Harmer, Tania, *Allende's Chile and the Inter-American Cold War*. North Carolina: The University of North Carolina Press, 2011.

¹¹⁸ *Hostile intent: U.S. Covert Operations in Chile, 1964-1974*, op.cit. p. 208.

¹¹⁹ *Salvador Allende. Revolutionary Democrat*, op.cit.

konfiskazioak egiten hasi ziren armak topatu nahian. Berehalako kolpearean aurrean, ezkerrean politika bi alternatiba kontrajarrietan banatzen zen. Lehenengoak, hau da, Allenderena eta Alderdi Sozialistaren eta Alderdi Komunistaren goi-karguak, Demokrata-kristauarekin akordio bat lortzen saiatzea helburu zuen, eta gobernu partekatatu baten aukera barne zegoen. Eta, beste aldetik, Miguel Enríquez buruzagiak gauzatu nahi zuena, hots, MIRren politika. Bigarren aukera horrek honako hauen alde egin zuen: herri-batzarrak antolatzea, indartzea eta armatzea eta lantegietan herriaren boterea ezartzea¹²⁰.

Kontrairaultzak ezin izan zion aurre egin Allenderen Iraultza sozialistari. Momentu horretan, Unidad Popularrak armada eta herria bere alde zituela zirudien. Horrela, Iraultzak beste hilabete batzuk iraun zuen boterean. Hala ere, inperialismo estatubatuarrak ez zuen onartuko bere botere-eremutik kanpo zegoen gobernuak gobernatzen jarrai zezala Txilen, eta *Tanquetazo*-aren ondoren benetako kontrairaultza suertatuko zen herrialdean, estatu-kolpe bezala irudikatuko zena.

5. Augusto pinocheten estatu-kolpea

1973ko irailaren 11n, *El Siglo* egunkari komunistak egun horretan gertatu ziren gertakariei aurrea hartu zien. Bere epigrafeak honela zioen: “Partido Comunista llama al pueblo” eta, jarraian, izenburuak letra handitan honako hau zioen: “¡Cada cual en su puesto de combate!”.

Izan ere, ikerketa-lan honetan esan den bezala, iraultza-saiakera ororen ondoren, kontrairaultza-saiakera bat dator, eta Txileren kasuan estatu-kolpe gisa etorri zen kontrairaultza. *Statu quo*-aren alde egiten duten potentziek beti egiten dute iraultzailetzat jotzen den guztia amaitzearen alde. Hala gertatu zen Txileren kasuan, Allenderen gobernuak Iraultza saiakera egin eta hiru urteren buruan, herrialdeko eskuin eta eskuin muturreko sektoreek babestutako eta Estatu Batuek finantzatutako kontrairaultza etorri zenean.

Polarizazio politiko eta sozial handiak markatutako urte batzuen ondoren, 1973ko irailaren 11n, Augusto Pinochetek estatu-kolpea eman zuen Txilen. Kolpeak Unidad Popularreko gobernu demokratikoarekin amaitu zuen eta herrialdea diktadura

¹²⁰ “Golpe de estado en Chile lecciones para la historia”, op.cit. p. 26.

militar bihurtu zuen 1990. urtera arte. Jazarpen handiko urteak izan ziren Allenderen inguruko jendearentzat, non Allenderen ministro eta goi funtzionarioak atxilotu eta kontzentrazio-esparruetara bidali zituzten. Azken finean, Kontrairaultzak giza-eskubideak errespetatu gabeko urteak ekarri zituen.

5.1. Estatu-kolpearen prestaketa

37

Kolpea irailaren 11rako planifikatu zen, José Toribio Merino Armadako almiranteordea eta Gustavo Leigh Aire Armadako komandantea buru zituela. Egun horretan armada Santiagon kontzentratuta zegoen *Glorias del Ejército* jaieguna ospatzeko. Irailaren 8an, Arellano Stark jeneralak Pinochet jeneralaren babesa eskatu zuen, baina horrek ez zuen behin betiko erantzunik eman. Hurrengo egunean, Salvador Allendek Komandante Buruari eta Armadako beste jeneral batzuei plebiszitu bat antolatzea erabaki zuela jakinarazi zien, krisi politiko larriari irtenbide bat emateko asmoz. Egun horretan bertan, kolpearen buruek Pinocheten laguntza izan zuten.

Irailaren 8an, CIAk eta DIAk (Defentsako Inteligentzia Agentzia), ordea, estatu kolpearen berri eman zioten Washingtoni, eta irailaren 10eko data baieztatu zuten. Ultrasekretu gisa sailkatutako eguneko txosten batek jakinarazi hurrengoaren zuzen: hiru armadek Gobernuaren aurka altxatzea erabaki zutela 1973ko irailaren 10ean, eta zantzu guztien arabera, ekimenak eskuineko taldeen eta terrorista zibilen laguntza izango zuela.

Irailaren 9an, Santiagoko operazioen baseak atzera-kontua eguneratu zuen. Bere agente sekretuetako batek, Jack Devin-ek, herrialdetik ihes egiten ari zen laguntzaile baten deia jaso zuen, eta estatu-kolpea irailaren 11ean egingo zela esanez. Gainera, Langleyko kuartel nagusiari hilaren 10ean bidalitako txostenak honakoa zioen: "atentatu kolpista irailaren 11n izango da. Ekintzan lurreko, itsasoko eta aireko armadak eta karabineroak daude inplikaturik. Kolpearen egunean, goizeko zazpiretan, adierazpen bat irakurriko dute *Radio Agricultura*. Karabineroek Salvador Allende presidentea atxilotzeko ardura dute"¹²¹.

Atzerriko laguntzari dagokionez, estatubatuarren ahaleginak norabide guztietara zuzendu ziren. Nazioarteko politikan, Argentinak eta Brasilek Amerikako Estatu Batuekin bat egin zezaten saiatu ziren, Allenderi uko egin ziezaioten. Politika ekonomikoaren arloan, neurri batzuk diseinatu ziren "Txileko ekonomia eztanda egin

¹²¹ Idem.

zezan", eta, gainera, Estatu Batuak Europako bankuak eta estatuak behartu zituen inolaz ere ez negoziatzera Allenderen aurreko gobernu demokristauek hartutako zorraren inguruko kontzeptuekin¹²².

Brasil, Argentina eta Boliviako inbertitzaileek modu aktiboan babestu zituzten Txileko sektore pribatua eta *Patria y Libertad*¹²³ irailaren 11 baino lehen. Kolpea baino hiru aste lehenago, Unidad Popularreko funtzionarioek mugimendu militar susmagarriak salatu zituzten Boliviako muga. 1971ko abuztuan, Hugo Banzer-ek Bolivian estatu-kolpea eman zuenetik, Txileko eskuinak modu eraginkorrean erabili zuen Bolivia Txile aldera armak bideratzeko. Gainera, Arturo Marshall jenerala, 1970ean René Schneider-en aurka konspiratu zuena, Bolivian bizi zen. 1973. urtearen erdialdean, *Patria y Libertad* alderdiko burua ere Txilera itzuli zen, Bolivia, Paraguai eta Argentinara babes bila joan ondoren. Etxera itzultitakoan, gobernuaren aurkako gerrillen gerra hasiko zuela agindu zuen. Hego Kono osoko buruzagi militarrek kolpistekin konspiratzen ari zirela ere uste zen, eta hori oso litekeena da. Bestetik, Brasilgo enbaxadoreak ez zuen ezkutatu Allende begitan hartua zuela¹²⁴. Azken finean, Unidad Popularrak ez zuen Hego Konoko herrialdeen babesa, eta, gainera, herrialde horiek Estatu Batuen politiken menpe zeuden. Era horretan, eragozpen bat ziren Unidad Popularraren gobernuarentzat.

5.2. Irailaren 11

Estatu-kolpea eman ez zedin, funtsezkoak ziren industria-hesiak, herriaren mobilizazioa eta ikasleen borroka, baina mundu militarreko sektore esanguratsu bat ere behar zen. Allende presidentearen aldeko ezkerrek uste zuen bazuela sektore horren babesa, baina irailaren 11n ikusi zen ez zela horrela: armada ez zitzaion Unidad Popularrari leiala izan eta kontrairaultzaren alde egin zuen.

Gauerdia ostean, *Silencio* planak airetik atera zituen ezkerreko irratia batzuk, zibilen eta militarren taldeak bandoak prestatzen ari ziren bitartean. Jorge Urrutia karabineroen jeneralak Valparaisoko altxamenduaren berri eman zuen telefonoz.

¹²² Idem.

¹²³ Eskuin muturreko organizazio paramilitarra, Allenderen aurkako fakzio erreakzionario bortitza izan zena.

¹²⁴ *Allende's Chile and the Inter-American Cold War*, op.cit.

Horrela, goizeko 06:00etan, militarren joan-etorriak agerikoak izaten hasi ziren, eta gertaeren berri ematen hasi zitzairen Unidad Popularreko kide guztiei.

Santiagoko gertaerak goiz hasi ziren garatzen. Itsas Armadaren altxamenduaren berri izan ondoren, Allende La Moneda jauregira joan zen goizeko 07:30ean. Jauregia karabineroen tanketez inguratuta zegoen. Junta Militarraren lehen agiria ezagutu ondoren, pixkanaka erretiratu ziren. Berrogeita bost minutu beranduago, lehorreko gobernu-jauregiaren aurkako eraso hasi zen. Azken finean, Allende La Monedan geratu zen iraultza defendatzen, alegia, Estatuaren boterea sinbolizatzen zuen jauregian.

Goizeko hamaikak aldera, presidenteak bere azken mezua helarazi zion herrialdeari, gobernuaren aldeko irratigailu kate baten bidez. Bertan, gobernu-etxea ez uzteko hartu zuen erabakia adierazi zuen. Gaineratu zuen tinko eutsiko ziola "Txile defendatzen jarraitzeko" jarrerari.

Eguerdiaren hasi zen La Moneda-ren kontrako bonbardaketa, eta 15 minutu iraun zuen. Txileko Aire Armadako Hawker Hunter hegazkinek, beraien helburua gainditu ondoren, gobernuaren egoitzari eraso egin zioten "Rockets" suzirikin, gelak suntsitu eta eraikinaren sutea eragin zutenekin. Handik eta minutu gutxira, La Moneda erori zen, eta Allende hilda aurkitu zuten areto nagusian, ustez bere buruaz beste egin zuen armaren ondoan. Hurrengo egunean, herrialdeko prentsa osoak lehen planoan erakutsi zuen La Moneda Jauregia suntsituta eta kea zeriola. Eraikinak hiru mendeko historia zuen, eta Txileko Errepublikako hogeita hiru presidente aterpetu ondoren, inoiz ez zen aurretik suntsitua izan.

Irailaren 11ko estatu-kolpeak Txileko langileria indargabe eta desarmatuak aurkitu zituen. Txileko esperientzia funtsezkoa izan zen Hego Amerikan Kondor Plana aplikatzeko, nazioarteko errepresioa koordinatzeko. Argentina, Brasil, Uruguai, Paraguai eta Boliviako inteligentzia zerbitzuen eta CIAren operazioen base bihurtu zen Txile, Txileko Inteligentzia Nazionaleko Zuzendaritzarekin batera¹²⁵.

¹²⁵ López, Ana, "A 47 años. El golpe de Estado en Chile". *La izquierda diario*. Irailak 11, 2020. Hemen eskuragarri: <https://www.laizquierdadiario.com/El-golpe-de-Estado-en-Chile>

6.3. Estatu-kolpearen ondorioak

Kanpoko eta barruko eraginak, azkenean, irabazi egin zuen, eta gobernua boteretik kendu izan zen. Unidad Popularraren aldeko hiru mila pertsonatik gora, hamar milioi biztanle baino ez zituen herrialde batean, hotz-hotzean hil zituzten hurrengo sei hilabeteetan, eta hogeita hamar mila pertsona inguru espetxeratu eta torturatu zituzten¹²⁶. Bere historian lehen aldiz, Txilek erbestea masan ezagutu zuen. Errepresio ekonomiko eta kulturala apaldu egin zen langileen artean: inflazioa % 1.000 baino gehiago igo zen kolpe militarren ondorengo 12 hilabeteetan, langabezia % 3tik % 15 izatera pasatu zen, soldatapekoen erosteko ahalmena % 60tik gora jaitsi zen, moneta ia % 4.000 debalatu zen, eta unibertsitateetan ikasleen eta irakasleen % 25 eta % 60 artean kanporatu zen¹²⁷.

Pinocheten kolpeak Ipar Amerikaren menpeko herrialdeetako esku-hartze militar modernoenen ezaugarri nagusi gehienak partekatzen zituen. 1961etik Estatu Batuek defentsa hemisferikoari aplikatutako lerro operatiboaren barruan egon zen, erakunde militarrek barne-ordenako eta gizarte-kontserbazioko indar gisa antolatu baitzen¹²⁸. Horrela, Estatu Batuei erronka zuzena planteatzen zien gobernua, bai eskualde-mailan bai mundu-mailan, eta potentzia handiaren interes ekonomikoak arintzen zituena, bere herrialdeko armadak boteretik kendu zuen, Estatu Batuek herrialdean izan zuten esku-hartzeari esker¹²⁹. Estatu Batuetako enpresek gerra deklaratu zioten Allenderi hauteskundeak irabazi eta berehala. Lehen aipatu bezala, ITTk, Txileko telefono konpainiaren % 70 zuena eta laster nazionalizatuko zena, paper nagusia jokatu zuen. Baina, hala ere, beste enpresa batzuek ere Allenderen gobernuarekin amaitzen lagundu zuten, hala nola Purina, Bank of America eta Pfizer *Chemical*¹³⁰.

Aipatu beharra dago Nixonek, Allende presidente aukeratu zutela jakin zuenetik, Richard Helms CIAko zuzendariari agindu ospetsua eman ziola, Txileko "ekonomiari garrasi eginarazteko"¹³¹. Eta halaxe egin zuen. Estatu Batuetako multinazionalak beldur ziren Allende Latinoamerikako eta Karibeko joera orokor baten hasiera izango ote zen. Orduan, Txile Chicago Boysen programa neoliberalen laborategia izatea planteatu zen.

¹²⁶ Valech Txostenan jasotako datua. Hemen eskuragarri: <https://www.indh.cl/destacados/comision-valech/>

¹²⁷ Garcés, Juan, *Allende y la experiencia chilena: las armas de la política*. Madrid: Siglo XXI de España Editores, 2013, p. 224.

¹²⁸ Ibidem, p. 106.

¹²⁹ *Reagan and Pinochet: The Struggle over U.S. Policy toward Chile*, op.cit. p. 14.

¹³⁰ Klein, Naomi, *La doctrina del shock*. España: Booket, 2007, p. 96.

¹³¹ Ibidem, p. 97.

Laborategi bizi horretatik sortu zen Chicagoko Eskolaren lehen estatua, eta bere Kontrairaultza globalaren lehen garaipena¹³².

Chicagokoek eta beraien irakasleek, Hego Konoko erregimen militarrei aholkularitza eskaini eta gobernuetan lekua hartu zutenek, funtsean purista zen kapitalismo modu batean sinesten zuten. "Orekan" eta "ordenan" oinarritutako sistema bat ezarri nahi zuten, funtzionatzeko distorsiorik ez egotea eskatzen zuena¹³³. Izan ere, *statu quo*-aren indarrek horixe nahi dute: ordena, alegia, sistema kapitalistaren barruko ordena bat, Allenderen gobernu iraultzaileak ematen ez ziena. Gainera, Allendek ekarritako "desordena" berri horrek Latinoamerikan zehar hedatzearekin mehatxatzen zuen.

Pinocheten diktadura gupidagabeak iraun zuen hamazazpi urteetan, Txileko militarrek 3.197 herritar inguru exekutatzearen edo desagertzearen erantzule izan ziren, eta horiei gehitu behar zaizkie gehiegikeria basatien biktima izan ziren milaka herritarrek, hala nola espetxeratze arbitrarioa edo nahitaezko erbestea, tortura eta estatuko beste terrore mota batzuez gain¹³⁴. Hori dena Estatu Batuek herrialdean ezartzea nahi zuten ustezko ordenaren pean gertatu zen, milaka heriotza eragin zituen ordena baten eta klase popularrak hondamendian utzi zituen sistema neoliberal baten eraginez.

Azken finean, Pinocheten estatu-kolpeak argi eta garbi uzten du iraultzek nazioarteko ordenan duten garrantzia. Washingtonek ez zuen Allendek hauteskundeak irabazi arte itxaron Txilen bere esku-hartzea hasteko, alegia, iraultza hasi aurretik ere iraultzarekin amaitu nahi izan zuen. Gainera, Txileko kasuak beste adibide argi bat eskaintzen digu Iraultza ooren ondoren beti Kontrairaultza datorrela egiaztatzeko eta *statu quo*-ren potentziek ez dutela begi onez ikusten inolako aldaketarik.

1988an, Pinochetek herriari beste zortzi urtez jarraituko ote zuen galdetzen zion erreferenduma egin zen. 1987ko erreferendumaren aurretik, nazioarteko presioaren aurrean, Pinochetek alderdi politiko batzuk legeztatu zituen. Hala ere, Txileko herritarren % 56k diktadorea zortzi urte gehiago karguan egoteari uko egin zion, eta, ondorioz, hurrengo urtean presidentetzarako eta legegintzarako hauteskundeak egin zituzten. Horiek Patricio Aylwin demokristauak irabazi zituen, Pinochet presidente bezala 1990eko martxoan ordezkatu zuenak. Horrela amaitu ziren Txileko

¹³² Ibidem, p. 106.

¹³³ Ibidem, p. 142.

¹³⁴ "El golpe de Estado de Chile ha sido poco menos que perfecto", op. cit.

kontrairaultzaren urteak, nahiz eta horren arrastoak erakundeetan eta gaur egun Txileko Estatuan indarrean dagoen Konstituzioan geratu ziren.

2019an, Txileko herritarrak kalera atera ziren berriro, herri-klaseak nazkatuta baitzeuden diktadura garaitik ezarritako politika neoliberalekin, eta Sebastian Piñeraren gobernuarekin larriagotzen ari zirenekin. Txilek Pinocheten diktadurapean idatzi zen konstituzio bat mantentzen jarraitzen zuen, eta, gainera, langile-klasea gero eta txirotuago zegoen. Horiek horrela, Metroko txartelen igoerak eman zion hasiera gaur egun "Txileko eztanda" bezala ezagutzen denari¹³⁵. Aldaketa gai zehatz batekin hasi zen, baina gero harreman sozial eta politikoen begirada desberdina ezarri zen. Manifestariak gogaituta zeudela adierazi zuten kalean, oinarritzko eskubideak eskura ez zituztelako, eta egungo pentsio sistema gero eta pribatuagoa zelako.

Izan ere, horrek argi uzten du Iraultza bat gertatu den gizarteetan txinparta iraultzailea beti dagoela ezkutuan. Eta Covid-19ren pandemiak mobilizazioak geldiarazi baditu ere, 2020ko urriaren 25ean Txilen plebiszitu bat egin zen herritarrak konstituzio berri bat idazteko prozesu eratzaile bat abiaraztearekin ados ote zeuden zehazteko eta prozesu horretarako mekanismoa egiteko. Hori guztia kalean egin zen borrokaren ondorio zuzena izan zen. Hala, plebiszitudan parte hartu zuen Txileko herritarren % 78,28k konstituzio berria idaztea erabaki zuen, eta onartu zuenaren % 79k Konstituzio Konbentzio bat idaztea erabaki zuten. Hala ere, herria ez da ados jarri eta Txilek 1980ean idatzi zen konstituzioa oraindik ere indarrean du.

¹³⁵ Waissbluth, Mario, "Orígenes y evolución del Estallido Social en Chile". *Centro de Estudios Públicos Universidad de Chile*, 2020, p. 6.

6. ONDORIOAK

Iraultza antzinako Greziaren aurretik aipatu daitekeen kontzeptu politiko bakarrenetariko bat da, eta, gainera, Calvert-ek¹³⁶ esan zuen bezala, kontzeptu politikotzat onartua izan zen lehena izan daiteke. Hori dela eta, kontzeptuak benetako garrantzia du. Hala ere, bere benetako definizioa ematea zaila da, Iraultzek ez baitute egitura uniforme¹³⁷. Dena dela, horrek hamaika autore bultzatu ditu beraien definizioa eman nahi izatera.

43

Bestalde, garrantzitsua da aipatzea, alde batetik, gutxi izan direla Nazioarteko Harremanen diziplinak iraultzekin mantendu dituen harremanak, eta, bestalde, marjinala izan dela beraien existentzia. Iraultzen garrantzia, diziplinaren baitan, bigarren maila batean geratu da. Dena den, lanean zehar ikusi den bezala, hori ez da horrela izan, Iraultzek XX. mendea moldatu dutela esan daitekelako.

Azken finean, Iraultzak ez dira Estatuaren barnean gertatzen diren kasu isolatuak, ez baitira inoiz barne-mailan geratzen. Iraultzak nazioarteko ekintzak dira, herrialdeetako mugetatik haratago joaten direnak. Izan ere, Iraultzek benetako erronka dira *statu quo*-a mantendu nahi duten potentzientzat, eta, hori dela eta, potentzia horiek Iraultzak suertatzen diren edo suertatzeko arriskua duten Estatuetan esku hartzen dute.

Beste alde batetik, aipatu behar da Estatu Batuetako gobernuaren papera erabakigarria izan zela Augusto Pinocheten estatu-kolpean. Estatu Batuek 1970. urteko hauteskundeak baino lehen esku hartu zuten Txilen, Allende presidente bihurtu ez zedin. 1964 eta 1969. urteen artean, CIAk ezkutuko ekintzetan gutxi gora behera bi milioi dolar inbertitu zituen, Estatu Batuetako gobernu agentziek eta bere kontrolpeko gobernu erakundeek Frei-ren gobernuari ofizialki 3.055 milioi dolar eman edo mailegatu zituzten, eta konpainia multinazionalak eta potentziaren gobernuak presidentetzakantainan 1.700.000 dolar inbertitu zituzten. Allenderen alderdiaren aurkako ekintzak ez ziren gobernu hartu eta berehala bukatu. Estatu Batuek inbertsio handia egin zuten Allenderen aurkako kanpaina mediatiko handia egiteko. Horretarako, herrialde desberdinetako kazetariak bidali zituzten herrialdera.

Hala eta guztiz ere, Estatu Batuen ekintzei aurre egiteko asmoarekin, Txile joera sozialistako herrialdeekin aliatu zen. Era horretan, bere kanpo-politika herri

¹³⁶ *Revolution*, op. cit.

¹³⁷ *Anatomies of revolution*, op.cit.

independente edo kolonizatuekin adiskidetasun- eta elkartasun-loturak ezartzera bideratuta egon zen. Gainera, zentzu latinoamerikanista eta antiinperialista zuen.

Iraultzek eta Kontrairaultzek XX. mendea erabat markatu dute. Fenomeno horiek bizi izan zituzten herrialdeak nazioarteko sisteman nagusi zen *statu quo*-a kolokan jarri zuten. Gainera, gertaera horiek oso garrantzitsuak izan dira Latinoamerikaren eta Karibearen kasuan, non, azken mendean zehar, hamaika biztanlek beren bizitzaren zatiren bat iraultza garaietan bizi izan duten.

Kontrairaultzak iraultzei ematen zaien erantzun ia unibertsalak dira, eta horrela ikusi da Txileren kasuan. Nazioarteko sisteman benetako eragina duten potentziek iraultzekin amaitu nahi dute, beraien boterea kinka larrian ikusten dutelako. Erregimen kontrairaultzaileek ordena zaharra berrezartzeko saiakerak egiten dituzte.

Kontrairaultza izan zen Txilen Estatu Batuek boterea erakusteko gauzatu zuten modua, eta, horrela, Allenderen gobernu sozialista boteretik kendu zuten, iraultzaren eta erreformaren hedapenaren aurka eginez. Kasu honetan, ez zen Gerra Zibila gertatu, baina, horren ondorioz, inflazioa eta kolapso ekonomikoa piztu ziren herrialdean.

Hori guztia kontuan hartuta, Iraultzak eta Kontrairaultzak munduko historia modernoaren oinarritzat jo daitezke. Hortaz, ezin dira bigarren maila batean utzi. Horren adibide dira Iraultzak geldiarazteko egin diren saiakerak, Kontrairaultzen bidez (adibidez, Txilen gertatutakoa).

Amaitzeko, garrantzitsua da aipatzea Iraultzak bizi izan dituzten gizarteetan, hala nola Txilen, iraultza-sentimenduak bizirik jarraitzen duela, eta edozein momentutan txinparta iraultzailea berpiztu daitekeela. Hain zuzen ere, hori da Txilen 2019. urtean gertatu zena. Txileko biztanleak kalera atera ziren berriro, eskubideak aldarrikatzera eta Augusto Pinocheten diktaduratik ezarritako politika neoliberalen kontra borrokatzera. Azken finean, Iraultza gertatu den gizarteetan berriz ere Iraultzak gertatu daitezke.

Bibliografia

Andrés, R. (2017). “El Tanquetazo: la sublevación militar que anticipó el derrocamiento de Salvador Allende”. *La izquierda diario*. Ekainaren 29a. Hemen eskuragarri: <https://www.laizquierdadiario.com/El-Tanquetazo-la-sublevacion-militar-que-anticipo-el-derrocamiento-de-Salvador-Allende>

Arendt, H. (1951). *Sobre la revolución*. Madrid: Alianza.

Armstrong, D. (1993). *Revolution and world order: The revolutionary state in international society*. London: Oxford University Press.

Baechler, J. (1974). *Los fenómenos revolucionarios*. Barcelona: Ediciones Península.

Beluche, O. (2020). “Golpe de estado en Chile lecciones para la historia”. *Archipiélago. Revista cultural de nuestra América*, 28.

Bisley, N. (2004), “Counter-revolution, order and international politics”. *Review of International Studies*. 30, pp. 49–69.

Burke, E. (1993). *Reflections on the Revolution in France*. Oxford: Oxford University Press.

Calvert, P. (1970). *Revolution*. Southampton: Macmillan Education.

Cannabrava, P. (1979). “Carter y la Trilateral”. *Nueva Sociedad*, 40, pp. 73-83.

Carbone, V. L. (2006). “Cuando la Guerra Fría llegó a América Latina. La Política Exterior Norteamericana hacia Latinoamérica durante las presidencias de Eisenhower y Kennedy (1953-1963)”. *Centro Argentino de Estudios Internacionales*, 27.

Carmona, E. (2005). “Pinochet usó dos sombreros diferentes, uno con los protagonistas del “tanquetazo” y otro con el presidente Salvador Allende”. *Voltairenet.org*. Urriaren 31a. Hemen eskuragarri: <https://www.voltairenet.org/article130272.html>

Cockroft, J. eta Canning, J. (2006). “Chronology: Chile 1970-73”, Aguilera, P. eta Fredes, R. (ed.). *Chile, the other september II: an anthology of reflections on the 1973 Coup*. Australia: Ocean Press.

DeFronzo, J. (2015). *Revolutions and Revolutionary Movements*. Connecticut: Westview Press.

De la Contienda, G. (2009). “La política exterior de Estados Unidos de América”. *Anuario Internacional CIDOB 2009*.

Figueroa, V. (2013). *Salvador Allende. Revolutionary Democrat*. London: Pluto Press.

Foran, John (2005). *Taking power: on the origins of third world revolutions*. Cambridge: Cambridge University Press.

Garcés, J. (2013). *Allende y la experiencia chilena: las armas de la política*. Madrid: Siglo XXI de España Editores.

Glejeses, P. (2009). *The Cuban Drumbeat*. London: Seagull.

Gustafson, K. (2007). *Hostile intent: U.S. Covert Operations in Chile, 1964-1974*. Washington D.C.: Potomac Books.

Halliday, F. (1999). *Revolution and world politics: The rise and fall of the sixth great power*. North Carolina: Duke University Press.

____ (2002). *Las relaciones internacionales en un mundo en transformación*. Madrid: La Catarata.

Hidalgo, R. V. (1978). "Estados Unidos y América Latina bajo la presidencia de Carter". *Estudios Internacionales*, pp. 83-119.

Jara, I. M. (2017). "Bipolaridad en Chile 1960-1973". *Revista Austral de Ciencias Sociales*, (5), pp. 39-52.

Klein, N. (2007). *La doctrina del shock*. España: Booket.

Lagos, G., eta Plaza, O. (1985). "La actual política exterior norteamericana y su proyección en América Latina". *Estudios Internacionales*, pp. 63-80.

Lawson, G. (2019). *Anatomies of revolution*. London: Cambridge University Press.

López, A. (2020). "A 47 años. El golpe de Estado en Chile". *La izquierda diario*. Irailak 11. Hemen eskuragarri: <https://www.laizquierdadiario.com/El-golpe-de-Estado-en-Chile>

Marx, K. (1845/1846-2014). *La ideología alemana*. Madrid: Akal

Mayer, A. (1971). *Dynamics of Counter-Revolution in Europe, 1870-1956*. London: Harper.

Morley, M. eta McGillion, C. (2015). *Reagan and Pinochet: The Struggle over U.S. Policy toward Chile*. Cambridge: Cambridge University Press.

National Security Archive (2020). “Allende y Chile: ‘Derríbalo’”. Hemen eskuragarri: <https://nsarchive.gwu.edu/briefing-book/chile/2020-11-06/allende-inauguration-50th-anniversary>

Nodal (2020). “Derrocar a Allende: inédito documento prueba que EEUU ordenó ‘agresión hostil’ contra Chile”. Azaroak 11. Hemen eskuragarri: <https://www.nodal.am/2020/11/si-hay-una-forma-de-derrocar-a-allende-hazlo-documentos-revelan-agresion-hostil-de-eeuu-para-provocar-un-golpe-de-estado-en-chile/>

Pettinà, V. (2007). “Del anticomunismo al antinacionalismo: la presidencia Eisenhower y el giro autoritario en la América Latina de los años 50”. *Revista de Indias*, 67(240), pp. 573-606.

Skocpol, T. (1979). *States and Social Revolutions*. Cambridge: Cambridge University Press.

Valech Batzordea— Instituto Nacional de Derechos Humanos (INDH) (d.g). Azken kontsulta 2024ko martxoaren 20an, hemen eskuragarri: <https://www.indh.cl/destacados/comision-valech/>

Waissbluth, M. (2020). “Orígenes y evolución del Estallido Social en Chile”. *Centro de Estudios Públicos Universidad de Chile*.

Wight, M. (1978). *Power politics*. Londres: Leicester University Press.